

# GOIERRITARRA

GOIERRITARRA ALDIZKARIA.

11. zenbakia.

91ko Urtarrila.

124 p.k. Ordizia —Goierriko euskaldunon aldizkaria—

Debaldeko aldizkaria



- ❖ GOIERRIKO Alkoholiko Anonimoak edanaren kalteak arintzen
- ❖ GOLKOTIK etorri den lazkaotar soldaduekin
- ❖ KONDOIAREN kanpaina eta puritanismoa aztergai inkestan
- ❖ IKULTUR elkarte eta jende ugari Goierriin
- ❖ ORDIZIAR «Yoloak», «Ez dok amairu»n pioneroak
- ❖ ERREPORTAIK eta elkarrizketak; Ataungo esaera jator askoak; Sexu arazoak adintsuengan; Bertsolaritzari buruzko zenbait iritzia ez bada; kartak, txutxu-mutxuak, herri txikiotako berriak, pertsonaiak, eta beti bezala piska bat denetik.

PERIODIKOAK  
PERIODICOS



# Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



**Si quieres un buen plan  
cuenta con la Caja.**

*Para que encuentres el Plan a tu medida, sólo tienes que decidir cuál o cuáles te convienen más.*

*Para que en el futuro, las cosas salgan como tú las hayas previsto.*

**PLAN DE PENSIONES**

**PLAN DE AHORRO ASEGURADO**

**PLAN DE AHORRO**

Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen. Zuk nahi duzun bezala.

**PENTSIO-PLANA**

**AURREZKI-PLAN ASEGURATUA**

**AURREZKI-PLANA**

**AURREZKI-KUTXA  
MUNIZIPALA**



**CAJA DE AHORROS  
MUNICIPAL**

## GOIERRITARRA HILABETEKARIA

*Bertako txalaparta eta albistaria*

*Isiltzen ez den zintzarria*

11. zenbakia. 91.eko Urtarrila. Debaldeko alea. Tirada: 1.500 ale.

**Argitaratzailea:** "Goierritarrak"

Kultur Elkartea. Dorre- etxea, behea (Correos azpia). Tfna: 889612. 124 posta kutxa. Ordizia. Pulizitate dirusarrerak. GK 01\* 1.427.276-8

**2. etapaldirako orain arteko**

**Udal-Herri laguntzaileak:** Olaberria, Itsasondo, Altzaga, Arama, Zaldibia, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal, Ikaztegieta, Legorreta.

**Onartu eta agindu digute:** Zaldibia, Ordizia eta Beasaingoek.

**Ukatu::** Lazkaok.

**Erredakzioa:** Jon Mikel Arano, Xabier Nabarte.

**Ale honetan kolaboratu dute:**

Tere Irastortza, Aitor Larrañaga, Ramon Ugalde, Andoni Sarriegi, Jone Arin eta Josune Arruabarrena, Mendi, Patxi Zubizarreta, Imanol Iturrioz, J.M. Arandia, Mikel Aramendi, Miriam Berruete, Jexux Lete, publizitate emaila, inkestatu eta berriemai-leak.

**Gure eskerrik beroenak:** Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei (arazo txiki asko ditugu, dei egiguzu, zure aportaziotxo behar dugu, lan txikiren bat jarriko genizuke), gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaude-tenoi.

Fotokonposizioa, maketazioa eta inprimaketa: ANTZA.

Lege Gordailua: SS 926/89

Gaurko edo biharko kolaboratzailei:

Gure Telefonoa: 88 96 12

Irakurri eta zabaltzazu Goierritarrak!



**«Goierritarrak»  
Kultur Elkartea**



SUSKRIBITU ZAITEZ!

**GAUR EDO BIHARKO  
KOLABORATZAILEEI:  
GURE TELEFONOA, 889612.**

**IRAKURRI  
ETA ZABALTZAZU  
GOIERRRITARRA**

### KONTXEXIRI

Maite bat maitatzen det maitagarria  
begi ederra du ta guztiz argia;  
daukat urruti,  
bainan ezin det kendu burutik  
haren Itxura  
saldu al baliteke pisura  
urriaren truke  
nork erosi faltako ez luke.

Hogei ta lau leguaz nago aparte  
bitartean ba dauzkat milloi bat ate  
guztiak itxirik  
nahi arren ezin egon ixilik  
beti negarrez  
nere maite maitearen galdez  
ote dan bizi  
biotz-biotz nereko Kontxexi.

Iztueta

### ALPHA

Nere Segurako aitona  
ogia behar zuenean  
Castillara joaten zen  
jornalaritzara  
morrointzara.

Bere igitia trebeenetakoa omen zen  
bai, hori bai...  
Hamar haur zituen gosez etxean  
bai, hori bai!

Castillako jornalariak  
ogia nahi dutenean  
Goi-Herrira etortzen dira  
jornalaritzara  
fabriketara.

«Kanpokoak» pizkorak omen dira peontzan  
bai, hori bai...  
Hamaika haur ba dute gosez etxean  
bai, hori bai!

Castillako soroez eta Goi-Herriko tximiniez  
nere aitona eta kastellanoak jabetuko balira  
ez litzake ihes gehiagorik ikusiko  
ez Castillan ez Seguran.  
Bai, hori bai!

Mikel Azurmendi



**ALTZAGA:** —Artea Elkartea. Herriko Plaza.

**ATAUN:** Ataun Kirol Elkartea, Oargi Elkartea eta Troskaeta Elkartea: San Martin Auzoa. —Iñaki Eskisabel eta Xabier Barandiaran («Nondik» aldizkariaren arduradunak: Oargin). —Joxemartin Apalategi, antropologoa eta idazle: 470003 (Zorroaga). —Jone Arin, idazlea: San Gregorio. Joxe Migel Barandiaran, antropologoa, Sara etxea, San Gregorio. Dionisio Galparsoro, kultur zinegotzia: 881011. Juan Manuel Barandiaran, Goierri Eskola-ko zuzendari: 880062.

**BEASAIN:** —Academia D'os and dont's: 880346. —Bareak, komertziantelartea: 881446. —CAFeko langile eta enplegatuen sorospen kultura: 880364. —Gipuzkoako Foru Aldundia, bidezainen etxea: 880157. —Murumendi Pelotazale Elkartea: 880364. —Goiztiri AEK: 889340. —Soc Deportiva Beasain: 880874. —Soc. Ciclista Loinaz: 880874. —Asoc. Parálisis Cerebral: 880687. —Udal Euskaltegia: 889094. —Kimuak-Basajaun, kale nagusia, 23. —Aritzera udalekua, Yartzako ferriak, 12. «Ancha es Castilla» musika taldea, kale nagusia, 21-1d. —Goierriko Asanblada Ekologista: kale nagusia, 44-behea. —Loinaz abesbatza, Oriamendi 13. —Goierriko Zine Kluba, La Salleko ikastetxea, 886000. Aitzgorri mendi taldea, Jose Martin Arana, 2. —Beti-bizi Kultur Elkartea, Zazpi-Iturrieta, 7. —Alfil Xake Elkartea, Jose Migel Iturrioz, 23. Usurbe Elkartea, kale nagusia, 22. —Usurbe zinema: 880761. —Jesus Larrañaga Kultur Elkartea, Poligono Ezkiaga, 1. —Oria Garaia Kultur Elkartea, Sta. Maria, 5. Zaharren Egoitza, Erauskin errepidea, 5. Arrano Kultur Elkartea, Bista Alaia, 1: 887447. —Lanbide Kultur Elkartea, Juan XXIII, 2. —Beasain Kirol Elkartea, 880838. —Aitz-zorrotz Elkartea, Oriamendi 11. —Aralar argazkilari elkartea, Arana 2. —Juventudes Parroquiales, Sta. Maria, 3. —Gaztedi Elkartea, San Ignazio, 7. —Aurtzaka Dantza-taldea: 880285. —Lorea Agirre, kazetaria: 881406. —Tere Irastortza, idazlea: 889640. —Andoni Sarriegi, itzultzaile eta idazlea: 882683. —Josetxo Mendia, «Egin»-eko kazetari: 882326. —Urdanpilleta, «DV»-ko kronista, 881655. Xabier Mendiguren Elizegi, idazlea, 887683. —J.A. Insausti, itzultzailea: 882093. —J.M. Lasa, itzultzailea: 277117. —Iñigo Eguren, txistekontalaria: 882440.

Iñaki Ergin (Alkate J.a): 885900. Mikel Sarriegi: Oriamendi, 19-4. 880065. Jose Luis Zaldia (Euskara Batzordearen buru): 885900. Iñigo Eguren, txiste kontalaria: 887019. Jabi Ibisate (zine-kluba): 884347. Osasun Mentalaren Zentrua: 886766. Mari Paz Martin (Udal Euskaltegiko zuzendari): 889094. «Payi» (konposatzailea): 882286. Ion Olano (Gazteen mogidak): 883053. Peio Irizar (musikaria): 880779. Ixabel Olano (andereñoa): 887191-882365. Juan Bosko Mujika: 886834. Aitor Araña: 881639 (rugbilariak).

**EZKIO-ITSASO:** —Andoaga Elkartea. —Zelaiando Elkartea. —Antton Idiakez, kultur gizona: 889231. —Maria Rosario Idiakez, itzultzailea: 720267. —Xabier Mendiguren Bereziartua: 272951.

**GABIRI:** Osinalde Elkartea. —Erdie Elkartea. —Goruntz Dantza-taldea: 887396. —Iñaki Murua, bertsolaria: 880066/886355. —Marian Bidegain: 889231 (Maizpide).

Andoni eta Mikel Xabier Aizpuru (idazleak):..... Euxebio Igarzabal (bertsolaria) 884259.

**IDIAZABAL:** —Idiazabal Kirol Elkartea, Kultur Etxea. —Atxurbide Elkartea, Zepai kalea. —Axari Dantza Taldea, Gurutzeberri. —Axari Elkartea, Plaza Nagusia. —Otsoa Elkartea, Plaza Nagusia. —Kimu Elkartea, Kale Nagusia, 5. —Pilota Eskola, Igarondo Pilotalekua. —Zirika Irratia: 801099. —Martin Lizarazu, Kultur zinegotzia: 801064. —Alberto Aldasoro, EHNE-ko lehendakari: 801940. —Amaia Iparragirre («Egin»-eko kronista):

Juan Ramon Gerriko (bertsolaria) 801380. (Itsasondo):

Bixente Barandiaran (idazlea): 393833. Josetxo Iturrioz (I.K.T.): 884242.

**IKAZTEGIETA:** —Udaletxea: 653329. —Asoc. Guipuzcoana probinsiales: 653003. —Iñaki Zubeldia, idazlea: 426319.

**ITSASONDO:** —Gaztetxea, Goin-ko-Plaza. —Arbel-aitz soziedadea, Beheko-Plaza. —Jubilatu Egoitza, Udaletxeazpia. —Itsasondoko Kultur Taldea eta «Kantillape» aldizkaria: Udaletxea. —Udal Liburutegia, Udaletxeazpia. —Mikel Aramendi, idazlea: 421608. —Jexus Lete «Ibai-ertz», idazlea: 885197. —Joxe Mari Mendizabal, Kultura zinegotzia: 885906. —Mikel Mendizabal, bertsolaria: 884898. —Jon Mikel Arano, idazle

eta «Goierritarra»-ko kazetaria: 882268-889612. —Iñaki Larrañaga, soziologoa: 276855.

**LAZKAO:** —Danak Elkartea, S. Prudentzio, 25. —Domarda Elkartea, Areso, 7. —Esparru Elkartea, Elozegi 18. —Gerriko S.A., Elozegi 16. Txuri-urdi Elkartea, Hirigoien 12. —Xake Elkartea, San Prudentzio 27. Lazkao Kirol Elkartea, Kiroldegia. —Lazkao Abesbatza, Beneditarak: 880170. —AmaLur mendigoizaleak, Areso, 7. —Oin-Arin dantza taldea. —Antzar-gazteak Txaranga. —Danborrada Elkartea. —Euskal Herrian Euskaraz (Gerriko Tabernan). —Goiztiri AEK: Antsotegi. —Udal Liburutegia, Udaletxea. —Maizpide Euskaltegia: 889231. —Goierriko Euskal Eskola: 886500. —Juan Jose Agirre, Rufino Mujika, Kultur gizonak (Beneditarak): 880170. —Mirentxu Etxezarreta, idazlea: 886705. —Kaki Arkarazo, musikoa: 459629. —Maritxu Dorronsoro, Kultur zinegotzia: 886408. —Dionisio Amundarain, irakaslea: 889231. —Pello Aranburu, Maizpide Euskaltegiko zuzendari: 889231. —Pakea Garmendia, kazetaria: 887299. —Xabier Narbarte, bertsolaria: 888344. —J.M. Iztue- ta «Lazkaotxiki», bertsolaria: 882007. —Aitor Larrañaga, idazlea: 886408. Drindots musika taldea (Jon Urdangarin): —Josu Agirre, kultur gizona (Beasaingo Institutua). —Zorion Mujika, «DV»-ko kronista. —Mikel Albi- su, «Egin»-eko kronista: 882360.

M.J. Madariaga (Goierriko Euskal Eskola): 886500. Jon Urdangarin (Drindots): 887605. Bittor Galparsoro (bertsozalea): 886511. Karmele Santoyo (itzultzaile): 885272

**LEGORRETA:** —Bilkoin Elkartea, Kale nagusia 7. —Jotakea Elkartea, Nagusia 10. —J.M. Agirrezabalaga, kultur gizona 886225. Xabier Agirre, aktorea: —Peio Iturrioz, itzultzailea: 885850. —Imanol Lazkanoiturburu, argazkilaria, 806060.

**OLABERRIA:** Guraso Elkartea, San Juan Plaza. —Asoc. Poblado Jose Maria Aristrain. —Odol Emaileen Elkartea. —Arkupe Elkartea, San Juan Plaza. —Jose Antonio Olaberria (Aristrain Fundazioa): 880300. —Martin, Udal-gizona: 881434.

**ORDIZIA:** —Jakintza Dantza Taldea, Jose Arana kalea. —Txapel Gorri Kirol Elkartea, Garagartza plaza. —Azari Ehiza eta Arrantza Elkartea, Urdaneta 10. —Ordiziako Kirol El-



karteia. -Ordizia Rugby Elkartea. —Boxing Ziklo Kluba, Filipeneta 17. —Irriki Kultur Elkartea, Jose Arana Kalea. —Ordiziako Gazte Asanblada, Gaztetxea: 888092. Arlote Irratia: idem. —Balakataklin Atsedendirako taldea, Kale nagusia 14. —Altamirako Auzo Elkartea: Altamirako eskolak. —Itxaropena Elkartea, Goierri kalea. —Argi-berri Elkartea, Gipuzkoa kalea. —Larrun-arri Elkartea, Jose Arana kalea. —Ordiziako Kultur Etxea (Barrena Jauregia: 881280), Nikolas Lekuona plazan: Ortzadar Argazki Elkartea, Musika Eskola, Bertsolari Eskola, Oroith, Oroith Txiki eta Oroith Txikittoak Abesbatzak. —Santa Ana eta Santa Ana Txiki abesbatzak, Dorre-etxea. —Beti-Argi Banda, Dorre-etxea. —GOIERRITA-RRA Aldizkaria, 889612, 124. posta kutxa, Dorre-etxea. —Laguntasuna Rondaila, Dorrea. —Zio eta Honoris Kausa, poprock taldeak, Dorre-etxea. —Ordiziako AEK: 880874. —Otsaila, itzulpen-etxea: 889325. —Belen Maiza, Kulturako zinegotzia: 880800-886423. —Gema M. Arrugaeta, argazkilaria: 889325. —Ramon Amundarain, irakaslea: 886816. Imanol Otegi, abokatua, 880851. —Patxi Zubizarreta, idazlea: 882410. —Jon Imanol Iturrioz, kazetaria: 889581. J.M. Lariz, zinegotzia (Harremanak): 880446. —Ana Irastorza, kazetaria (Azokaren kronikak): 888465. —Garbiñe (Euskara Arduraduna): 885850. —Ramon Ugalde, irakaslea (880862, Institutua). —Rafa Arizmendi, «DV»ko kronista, 882126. —Iñaki Hidalgo, Kultur Etxeko arduraduna, 881280.

Alazne Iturrioz eta Pantxike Agirre ("Egunkaria"ren erredaktoreak): 370738. Fax-a: 365493. Mikel Leunda (EHEko kide): 884335. Patxi Usabiaga (irakasle): 883575. Karlos Eskañó (Arlote Irratikoa): 881727. Xabi Olano (C.O.P.): -- Jesus M. Munduate (prentsa korrespontsala): 881065. Julen Agirre (irakasle): 884987. Anjel Insausti (irakasle): 881205. Txema Auzmendi (kazetaria): 423644.

**ORMAIZTEGI:** —Barduliarrak Elkartea, Berjaidegi Enparantza. —Basozulo Elkartea, Zumalakarregi enparantza. —Zumalakarregi Museoa, Iriarte Erdikoa Baserria: 889900. —Ormaiztegi Kirol Elkartea, San Andres 14. —Igartzabal bertsolaria: 884259. —Xabier Gurrutxaga, politikaria: 882771. —Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia, idazleak: 884407. Joxe Ramon Elortza (bertsolaria): 887524

**SEGURA:** —Atsedend Jubilatuta Elkartea, Zurbano kalea. —Elorri Kultur Elkartea, Zurbano 23. —Segura Kirol Elkartea, Kultur Etxea. —Guraso Elkartea, Kale nagusia 24. —Txoritegi Elkartea, Zurbano Kalea 4. —Zopajale Elkartea, Larrizabal 3. —Zain Berri dantza taldea: 801207. —Segura Irratia (Lierni Elorza), Zurbano kalea: 801041. —Luis Telleria, Kultur zinegotzia: 801340. —Joxe Mari Telleria, pintorea: 801217. —Rafael Gerriko, idazlea: 801036.

**ZALDIBIA:** Mendi Elkartea: 884856. —Koldo Zubeldia: 882278. —Migelanjel Unanua, idazlea: 885306.

—Joxe Mari Goikoetxea, musika ekoizlea: 426319. —Joan Mari Olano, politikaria: 458297. —Rufino Iraola, idazlea, 884353.

Emeterio Sorazu (erretorea): 882890. Altzo-txiki (bertsolaria): 887576

**ZEGAMA:** —Zegamako Kasinoa, San Martin 5. —Txarote Elkartea, Txarote auzoa. —Olaberri Elkartea: 801115. —Amaia eta Edurne Alustiza, idazleak: 801171. —Joxean Ormazabal, idazlea: 426319 (Elkar). —Iñake Ormazabal, idazlea: — Larrea, kultur zinegotzia, 801053.

**ZERAIN:** Listormendi Elkartea. —Kultur Etxea, Mari Flor Mendizabal: 801879. —«Zerain» Urtekariaren arduradun: Andoni Alustiza. —Luis Aizpeolea, Udal-gizona: 801682.

**Abisua:** Segurasko, agenda honek jasotako beharrek hainbat izen, telefono eta beste zenbait xehetasun, zuk, irakurle horrek, faltan nabaritu edo behar ez diren gisan azaltzen direla konaturatuko zinen. Hurrengo agendaren bati hori gerta ez dakion, bidal itzazu zure zuzenketa, aportazio eta berriak, Ordiziako 124. posta kutxara edo dei 889612ra.

## Debaldeko iragarkiak

### ETXEBIZITZAK

— Idiazabalen etxebizitza salgai. Sukalde eta bainugela erreformatua. 100m2 ditu. 553086 - 460808.

— Donostian etxebizitza salgai. 721186.

— Lazkaon etxebizitza salgai Lazkaon, antena parabolikoa eta beste berezitasun batzuekin. 884237.

— Etxebizitza salgai Lazkaon. Gurutze 4, obekuntzekin. 885521.

— Beasainen etxebizitza salgai. Zaldizurreta kalea. Hiru logela, bi bainugela, saloi ederra. Sukalde prestatua. Berogailu eta ur bero zentralizatua. 882723.

— Etxebizitza salgai Beasainen. Paseo del Oria kalean. 5. S.C. Sala, sukalde hornitua, 3 logela, 2 bainugela eta bi balkoi dituelarik. Berogailu zentralizatua, garaje eta trasteroa. 888901— 730206.

— Ordizian etxebizitza salgai. Poligono de la paz. 882605. Arratsaldeko sei retatik aurrera.

— Ordizian etxebizitza errentan nahi du. Hornitua edo erdi hornitua. 885174.

### SAL— EROSKETAK

— Txakurkume eme bat dut salgai. Setter ingeles arrazakoa. Hiru hilabete. Txertatua. Bere gurasoak oilagorretarako oso onak ziren. 15.000 pzt. 730962. Adolfo.

— Taxi plaza bat salgai Ordizian. Salneurria erabakitzekotan. 885680.

— Larruzko kazadora beltz bat salgai, berri— berria. Salneurria erabakigai. 884714.

— Txirrindu bat salgai, "Orbea" markakoa, egoera onean. Salneurri erabakitzekotan.

— Opel Corsa bat salgai, 1,25 swing. SS— V. 889991ra dei gauez.

— Hozgailu komertziala salgai. 885546.

— Berogailu elektriko ia berriak salgai, prezio onean. 882467.

— Umeentzako aulki bat salgai, estalki eta guzti, sonbrila eta bi ohazal oparitzen direlarik. 883532.

### LANA

— Neska bat behar du etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko. 888680— 881798.

— Neska eskaintzen da, etxeko— lanetarako edo jatetxe batetarako (esperientziaduna

eta euskaraz badakiena). 801328.

— 46 urtetako emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, arratsaldetan. 885477.

— Frantsez hizkuntzan lizentziatuak klase partikularrak emango lituzke. 883709.

— Esperientziadun neska bat eskaintzen da Ordizian dependienta bezala lan egiteko. 889823.

— Emakume batek orduka lan egingo luke, goizetan. 653311.

— Etxeko lanak egingo lituzke 39 urtetako emakume batek, edozein ordutan. 883198 (Karmenegatik galde).

### AGURRAK

— "Baso ta ibai, auzo; Au ez duan etxea, gaizto".

(Esaera zaharra: Inozenzio Munita, Aramako erretore ohiaren "Gure mendi ta Oianak" (1952) liburutik hartua.

— Ipi insumisoari goierriar gautxoriok: "Herriak uste du/ Semeak galtzen dituela/ Semeek uste dute/ Herriak irabazten duela/ Egun batean behar dugu berdin denok pentsa/ Herriak eta semeak/ Aske gaudela". Herrikoia



## Inkesta

### Zer iritzi duzu antisorgailuaren kanpainaz eta puritanismo uholdeaz?



**Periko Jauregi Fagoaga, 71 urte, lazkaotartua, jubilatua**

Absurdua dela uste dut kondoiaren kanpainaren aurka joatea. Horrek frogatzen du dugun mentalitatea, dugun ezezagutia sexualitateari buruz. Kondoia profilaxiaren aldetik ondo dago, gaisotasunak kutsatzea ebitatu behar da eta horrek bakarrik justifikatzen du. Dena dela, jakin behar da zertan ari garen, umeak enkargatzeko orduan, e.a. Ezin da arin ibili gauza hauekin.

Obispoen mezuak guztiz inpopularrak dira, berearen atzetik dabilta eurak, "umeak sortu zerurako" eta horrelako leloekin oraindik. Indar erreakzionarioak lekuz kanpo ari dira. Bestalde, esan beharra dago Hies-arena epidemia bat, dela, ez da "Jaungoikoaren zigorra" edo halako eufemismorik. Memelokeriak! munduan bizi garen jendetza izugarria da eta ditugun bitartekoak gainez egin digutela sortu da izurrite kontrolaezin hau, historian zehar beti gertatu ohi den bezala: pesteak, e.a.



**Mertxe Korta, 28 urte, ordiziarra, bidai agentea**

Antisorgailuaren kanpaina ondo dago eta ona da dudarik gabe. Beharrezkoa dela garbi daukat: Hies-a ez kutsatze aldetik, erlazio sexualak traumatikoak izan ez ditezen beldurrak direla eta, libreago

sentitzeagatik. Kanpainaren kontrakoek erabiltzen ari diren argudioak ez dira batere koerenteak. Hau da, ez dit balio kanpaina honekin bultzatzen ari dena promiskuidadea eta nahasmena dela esateak. Niretzat argi eta garbi dago, argi dagoen bezala atzeraka goazela, sexualitate eta feminismo arazoetan e.a. Badirudi garai bateko idealak bukatu direla, hemen (E.H.-an), zertxobait eusten bazaio ere; EEBBetako eragina izugarria da, telebista dela, bizitzeko era dela, e.a. Hortik etorriko da agian.



**Patxi Epelde, 34 urte, ordiziarra, artista**

Ez zeukat irudi handirik, ez zaidak ez ondo ez gaizki iruditzen. Orain, kondoia beti jarri beharrekoa duk. Lehen jartzen genizkian eta orain Estaduaren aginduz. Elizak ere badik zer esanik eta zerekin haserreturik... Sesioa zerbitzaturik zego. Batak eta besteak medio, maitasunaren magia deuseztatzen goaz.

Puritanismoa. Puritanoak dituk perbertitu, nazkante, oker eta bihurrienak. Maniako sexual, aberrante hutsak.



**Gurutz Bikuña, 26 urte, ataundarra, musikoa**

Kondoiaren kanpaina ondo dago, bai jendea informatzeko eta baita ziurtasuna izateko sexu-harremanak izateko orduan, gaitzak direla eta, beste hainbeste ara-

zoengatik.

Kanpaina derrigorrezkoa izan arren, horren ez alde ez kontra ez nagoenez, ez naiz sartzen ez aldeko ez kontrakoekin. Uste dut atzerako hieiek beti jendea beren kontrol barruan eta mugaturik eduki nahi dutela eta ez dute onartzen beren pentsakeraren arabera jokatzeko duena. Horrela funtzionatzen du sistema osoak: dena zurrupatzeko eta fagozitatzen du, kondoiaren salmentarekin dirua egingo dute, rock-etik etekinak eta irabaziak atera. Azken batean biltegi eta stock guztien atzean beraiek daude.



**Bittor Galparsoro, 50-bat urte, lazkaomenditarra, taxista eta bertsozale**

Nik urte batzuk badauzkat eta joan naiz zerbait ikasten izanez ere hainbeste gauza orain bait dira ikusten SIDA dela ta orain jendea preserbatibok erosten beldurgarria ez al da hori jarri ezkerre pentsatzen Gazte denboran ez gendun izan preserbatibo beharrik pekatu zala hori egitea danok geneukan sarturik jende guztia hola bizi zan guztiak ondo loturik lehen pekatu zan ta orain SIDA hemen badira komerik Ez dakin bati erakustea inoiz nola ez dan kalte eta norbaitek hartu beharra dauka hortan ere parte zoritxarrean bakarren batzuk gaur egun SIDA badute zahar eta gazte lantegi hortan kontuz ibili zaitezte

# egin oria-urola garaia

Zure herriko informazioa  
zehatza, zuzena, egunerokoa  
Nabarituko duzu!

INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA: KORREO KALEA, 14, Tfnoa: 67 54 11 - 55 TOLOSA

## MAIZPIDE EUSKALTEGIA *Goierritar: Euskaldundu - Alfabetatu!!* LANDU ZURE EUSKARA!

### **EUSKALDUN ZAHARROK:**

- \* Euskara txikitatik dakizuenok, ez al duzue zuen hizkuntza landu eta aberastu nahi?
- \* Euskaraz irakurtzeko gauza izan nahi?
- \* Ez al litzaizueke GOIERRITARRA, EGUNKARIA... erraztasun osoz irakurri ahal izatea gustatuko?
- \* Ba, oraintxe duzue aukera! Aprobetxatu!!
- \* Atera nagiak, eta animo!!!

**MAIZPIDE Euskaltegian ikastaro berezi-berezia zuentzat.**

**Labur-laburra: Otsailetik Aste Santura**

**Astean bi egunetan: astearte eta ostegunetan, iluntzetan,**

**2 orduko saio praktiko praktikoak**

**Anima zaitezte eta eman izena MAIZPIDEn**

**Urtarrilaren 25a baino lehen. Eta taldea osatu orduko hasiko gara lanean**

**Tfna: 943 88 92 31 / 32 LAZKAO**

**GOIERRIN MAIZPIDE EUSKALTEGIA**



### Labur

- Hemen dago 11. GOIERRITARRA. Urte betean 10 ale aterako genituela agindu eta bete duena. Estu, (dirulaguntzen eskasia!) bai. Baina ez askok nahiko luketeen bezainbeste. Felix Ibargutxik adibidez (D.V.-Zabalik), Goierriko herritarrek kasu gutxi egin digutela zioen (700 bat harpidedun ditugu adixkide) eta gure editoriala manejatzen habila azaldu bazen ere, Goierriren alde eta zerbitzuan gaude. Ez kontran!

- **I-XII-90:** Ataungo kronika, "D.V.": "Iferi ikasten dabilzan eskolaruei udalk diru-laguntza emango die". Entzuten duzuen bezala. Periodiku horretan kronika transkribatzaileek euskaraz ikasi dezaten arte jai daukagula!

- Lazkaoko Udalak, (EAJ-k bultzaturik eta EA-ren botoaz baliatuz) "elkartasun" arranke batek joa aidanez, ezein dirulaguntza ukatu dio GOIERRITARRARI. Aldizkaria dohain jasotzen duten ehun eta piko harpidedunei eta hartzaileei (dexente gehiagok ere eskatu lezakete) errespetu ederra!

- Zorion Muxika "D.V."ren Lazkaoko albistaria (eta Alderdikoa) idazmakinari jo eta ke ematen ari omen zaio etxesotoko bajeran egun osoz. Bere kronika laburrak, "mamitsu"ak izan arren --besteoi alderdikeria leporatu (!) eta dirulaguntza moztzen saiatu--, hainbeste denbora kenduko ez diotenez, saioaren bat-edo prestatzen arituko zaigu. Zorionez.

- Nikolas Zeberio bertsolaria Iruñera joan da Patxi anai bertsolariaren harategian lan egitera. Martxa handia omen dute han.

- Inkonbustiblea zirudien. Hurrengo Udal Hauteskundearen ostera, bi legealditan Lazkaoko alkatetzan egon den Diego Gurrutxagak postua utzi beharko luke, bere alderdiak (EAJ-k) irabaziko balu ere. Azken kasu honetan Estensoro edota (azken zurrumurruen arabera) Eskisabel zinegotzia alkate.

- Belarri ixkinara iritsi zaizkigu "Egin Irratia"ren uhinak aspal-ditxo honetan, eta badugu honez gero zerekin gozatu. Gai interesgarri ugari dakartza euskaraz, merezi du pena FMren 104 hartzeak.

- Patxi Ezkiaga poeta legorretarra askotan sarituak, derrepente bost liburu (baita narratiba ere) argitaratu dizkigu. Goierriko paisaia eta gauzak beroietan. Ezkiaga Martuteneko La Salle ikastetxeko zuzendaria dugu.

- Goierri eskualdean, euskaldunena Gaintza: %100. Askok ez dira izango baina to!

- Larunbat-igandetako "D.V."ren eranskinean, L.P. Peña Santiago urteetan saiatzen ari da mendi ibilbideak e.a. ematen. Gure arreta guztia merezi dute Goierriko paraje, aberastasun eta halakoei eskaintzen dizkion goraipamen artikulak. Zer egin den halako ermittan, zer dagoen galtzeaz, arriskutan zer den salatu, ekologia eta etika,... Eskerrik asko!

- Legaman diru-bilketan ari dira, Parrokiaren Elizan berogailu instalakuntza berria ezartzeko. Diru-laguntza-sarrerak: GK: 1.047.750.2 eta BBV: 20/053.419.

### Egunkaria

- Ordiziako Udalak "Egunkaria"ri dirulaguntza ukatu zion. PSOEko udalgizona ere "egunkari bakar baten alde". Beraz, "(Euskaldunon) Egunkaria"ren alde egon beharko lirateke, ez-tala? Bat besterik ez da, dakigula: Egunkaria.

- Gure Egunkaria kaleratzen denez geroztik euskaraz bizitzeko beste urrats bat eman dugu. Beste pox bat!

- Lehen Goierriko herri askotan ospatzen bazen ere San Nikolas Txikiaren festa hau (Lazkao, Olaberri, Beasain, eta enparauak), gaur egun ohitura zaharren arabera, hau da, zaldiz, obispo jantziz, e.a., Seguran bakarrik eutsi zaio. Ramona Lezeta eta Laureano Telleria izan dira usadio horren gordetzaille sutsuak.

- EPA edo Helduen Hezkuntz Iraunkorreko eskolak Ordizian eta Beasainen, behinepein, martxan jarriak daude, nahikoa gustora daudelarik beroien bultzatzaile eta bertan ari direnak. "Lau erre-gla" eta bost letrak ikastea baino gehixeago bilatzen dute denek ere: ikasle alfabetagabeak gizartean molda daitezela, alegia. Beasaingo Euskara Batzordeak irakasleek euskara jakin behar dutela dio.



### Zer gertatzen da...?: Ahaztu dugu Iztueta?

Juan Inazio Iztueta (1767-1807) Zaldibiako herrian eta Goierriin sortutako gizonik emankorrenetakoa izango genuen, historiari erreparatuz gero. "Guipuzcoaco Dantza Gogoangarriak" (Goierriko dantza tradiziozkoak bertan) "Guipuzcoaco Condaira" liburuak, "Kontxesiri" kanta ahaztuezina, besteak beste, utzi zizkigun emaitza ederrak.

Eta nola uste duzue dagoela orain dela hamarkada asko ez bere jaioterrian altxa zitzaion estatua? Ez sudur, ez beso, ez plaka, ez ezer ez duela. Ezagutezina. Bizitzan madarikatua izan eta gero ere hala segitzen du, antza. (Beasaingo Antonio Garmendia Otaola-koarena, frankismo garaiko zentsore eta inkisidorerik handiena ber-rau, egoera hobean dago!). Honek badu izen bat: utzi-keria, desidia, zabarkeria. Ez galde guri zeinena.



## Irakurri dugu...

### Zabortegi pirata Itsasondon

Hasera batetan, Itsasondoko Zubingo zabortegia hilabete batzutarako bakarrik jarri zen martxan. Hilabete horiek luza-tzen joan dira, eta gaur egun, laupabost urte pasa ondoren, Zubin-aldek zaborraz eta kez beterik jarraitzen du.

Bestalde, Beasainen egiten ari diren zabortegia, Goierri bailara guztirako izango dena alegia, batzuk diotenez egun batetik bestera martxan jarriko da. Beste batzuen ustetan aldiz, 19990.eko urtea joango da lan hori amaitzerako.

Bitartean, gure zabor-labea aberiatuta dago hilabete bat gutxienez, eta konpon-tzeko asmo gutxi dagoela dirudi, Beasaingo zabor-labea martxan berehala ja-rriko den ustearekin. Eta horrela, zabo-rak han aurkitzen dira erreken bi alde-tan, eta erreka bertan ere zenbait unetan horko zaborrak erortzen dira eta guzti hori gutxi balitz, orain, errepidean Zubin horretatik pasatzen bagara, beste zabor pilo bat ikusiko dugu leku nahiko izku-tuan, eta noski hau ere Itsasondoko lurre-tan. (...)

*Josetxo Iturrioz, Egin, 90-XII-?*

### Lizeoko zuzendariak 380 ikasle kanporatu

Beasaingo Lizeoak kaleratu dituen 380 ikasleak gaur bilduko dira Emilio Imaz zuzendariak itzultzeko jarri dizkien baldintzen aurrean zer egin erabakitzeko. Joan den astean ikasleek irakaskuntzako greba deialdiari erantzunez manifesta-zioa egin zuten. Biharamonean zuzenda-riak 380 ikasle kalean jarri zituen, bere baldintzak onartu arte.

(...)Zuzendaritza batzordeak hartutako erabakien artean, ikasleen delegatuak hu-rrengokoan kaleratzearena dago. Ikasleei bidalitako gutunean matrikula eskubi-deak kentzen zaizkie. Era berean, Li-zeoaren Barne Araudiari buruz zuzenda-riak egin dezakeen interpretazioa ikas-leek onartzea eskatzen du eta matrikula eskubideak eskuratzeko bai gurasoak eta bai ikasleak gutuna sinatzea esijitzen du.

*Jaione Garmendia, Egunkaria, 90-XII-8*

### Legorretar zauritua mintzo

Poliziek Donostian jendearen aurka tiro egin zutenean hiltzeko asmoa zutela adierazi zion atzo "Egunkaria"ri iaz Sal-beko istiluetan zauritutako Jesus Mari Gonzalez Ezamak. "Norbaitek honelako tiroak egiten dituztenean zein asmo du, ba-da?", adierazi zigun Gonzalez gazteak. (...)Donostiako Navajas fiskalak tiro egin zuten bi poliziek buruan kaskoa zutela eta, nortzu izan ziren ezin dela jakin onar-tu zuen baina gaztea ez da eritzi berekoa, "kaskoa izan ala ez, izenen bat izango dute polizia horiek, eta izen hauek lortzea ez dut uste hain zaila izan behar duenik". Gonzalez Ezamak gazte legorretarrak ti-roa tripan jaso ondoren ospitalera eramán zuten eta bertan ezkerreko giltzurdina kendu zioten. "Medikuek bizitza normala egin dezakedala diote, baina oraingo nire bizitza ez da hain normala, kirolak eta abar egiteko kontu handiagoa izan behar dut".

*X.L., Egunkaria, 90-XII-8*

### Zaharren euskara beherantz

Datuek diotenez, haur, gazte eta hel-duen taldeetan, euskararen erabilpena igo egin da gure kaleetan, ez ordea 60 urte gorakoen kasuan. Inkestak diotenez, talde honek lehengo urtean baino gutxiago erabiltzen du euskara, kalean behintzat. Honek, kontutan hartzeko datu bat ema-ten digu, orain arte haur eta gazteen tal-deak zirikatu nahi izan dira euskara era-biltzeko, bai eskolan, bai etxetan eta baita kanpaina askotan ere, eta hara non-dik seguruen genuen taldea, ohiturari heldu beharrean beheraka egiten duen.(...)

Orokorrean har-turik, inkestak lehengo urtean baino egoera ho-beago bat adieraz-ten du, orotara har-tu ezkerro, euska-raren erabilpena bi puntu igo bait da. hau da, %27'1etik %29'25ra. Hala ere, 100 pertso-ne-tatik 30ak bakarrik



egiten du euskaraz kalean. Taldeka ba-loratzen baditugu, haurren taldea da eus-kara gehien erabiltzen duena, hauetatik %57'7ak egiten bait du euskaraz, eta gu-txienak berriz, gazteen taldeak, kopurua %10'4ra jeisten delarik. Helduen taldeari dagokionez, %24'9ak egiten du euskara gazteak baino gehiago, baina hala ere, haurren erdiak baino gutxiago dira.

*Idoia Arteaga, Egin, 90-XII-7*

### Ziklo-krosa: garai berriak: Maiora/Izagirre

Bi talde berri sortu dira aurtan (iaz). Gulf-Scania Donostian, Iñaki Maiora profesional ohiaren zuzendaritzapean eta bost milioi inguruko aurrekontuare-kin.(...) Maioraren taldean Joxe Ramon Izagirrek, Francisco Pla valentziarrak eta Aitor Aburuza gazteak korritzen dute eta denboraldi hasiera honetan emaitza bi-kainak lortu dituzte, Izagirrek oso indar-tsu dagoela erakutsi bait du. Maiorak ar-gitu digunez: "Joxe Ramonek ondo da-goela erakutsi du hasierako laupabost ka-rreteretan eta gure asmoa urte osoan horrela irautea da. Indartsu ari da, ondo prestatuta dago eta Euskal Herrian eta Espainian etsairik ez duela izango espero dugu".

(...)Iurrebaso, Sala, Duran e.a. uzta zaharrekoak dira eta Izagirre, Igartua eta Pla berrikoak. (...) Ziklo-krosaren oraina egiten ari dira eta etorkizuna beraiek egingo dute"(...)

*Xabin Makazaga, Argia, 90-XI-25.*

### A zer flaxa: bederatziurrena:







# LEIAR

**KRISTALDEGIA**

Eraikin eta merkatalguneen  
Kristal ezarreratzea - Beirategiak - Orma-ispiluak

**ERAKUSKETA:** Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tlfn: 88 88 24

**BILTEGIA:** Beasaingo Industrialdea, Salvatore Auzoa. Tlfn: 88 60 70

**BEASAIN**

## GARAJE "LAZKAO"



**Renault**  
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak  
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

## BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tlf. 88 00 00

Kale Nagusia, 20

**BEASAIN**

## Castelu

*Iturgintza -*

Mendi-Ondo Etxea  
Tel. 88 40 57  
20247 ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7 - Tel. 88 80 29  
20200 BEASAIN



ORION **BERRIA**



MUJICA  
Automobilak




- FORD Mekanika-Segurtasuna: Zure Ford berria babesten duen garatia ez da bukatzen 12 hilabeteko epean, zehazki luza dezakezu babes hori 48 hilabeteetara, dituzun beharren arabera.
- Herdoilaren aurkako 6 urterako garatia
- Bizia duen arteko garatia
- Merkatuko garantiarik onena.

Errepide Nagusia, 1 • 419 Km.a • Tfnoa: 88 74 00 • BEASAIN



JOSE MARI ALONSO LAZKAOTARRAREN USTEZ, SOLDADUSKA OSOA  
KOLOKAN ZATEKEEN BERA BEZALAKO BEHARTUAK JOAN EZ BALIRA

# Golko Pertsiarretik etorri den mutila



Gerra usainean, sei hilabetez Pertsiar Golkotik ibili eta etxeratu zaigu (permisua beti labur) Jose Mari Alonso lazkaotar gaztea, esperientzi berri batekin, gizonago ez horratik. 300.000 soldadu behartuetatik berari suertatu behar! Goierriko kaleetatik erauzi eta a ze harrika-da eman dioten!

Hemezazpi urterekin, 4. errenplazozan, joan zen Jose Mari Alonso lazkaotarra soldaduskara, aurretik Goierri Lanbide Eskolan iturgin ikastaro bat egin eta horretan piska batean aritu ondoren.

San Fernandon (Cadiz) bandera-jura egin arte; Santa Maria fragata ospetsuan eta esperimentatuenetakozan astebete egin eta Ormuz-eko itsasartera maniobra batzu egitera zihoaztela adierazi zieten "berriei". *"Bagenekien dena, zertara, nora gindoazen. Bi egun utzi zizkiguten etxera deitzeko, despeditzeko"*, diosku Jose Marik. Jakina, amari ez zion ezer esan, arrebari baizik, honek esan ziezaion piskanaka amari. *"Mariñelen guraso guztiak bezalaxe, gaizki hartu zuten berria"*. Haserre ziren militarrekin denak ere, arrebagandik hasita. Pertsikoan egin dituen sei hilabetetan 2-3 minutuko etxerako telefono-deiak egiten uzten omen zieten (lehenengoetan non zeuden esatea debekaturik zuten) eta lazkaotarrak azkeneko ez deitzea erabaki zuen, ezertarako ez baitzuen ematen.

Aipatu beharra dago, haruntza joatea nahikoa ez zela agidanez, "nobatada txiki" batzu ere jasan behar izan zituztela. *"Lagun ustekoak puteatzen bazaitu gogortu egiten zara, nahiz eta morala jeitsi eta harrotasuna hautsi"*. Datorren udan desiaturik bukatuko du (inori aholkatzen ez dion) soldaduska Joxe Marik eta orduan esango omen ditu esan beharrekoak, zer gerta ere, badaezpada, presio batzu izan baitituzte (Komandanteak: *"Kontuz zer diozuen hortik: Golkoan dauden"*



*familikoen lasatasunagatik batipat" (!)*


Muzin egin dio "ETB"ri, baina guk lortu dugu mutil apal honekin egotea.

**GOIERRITARRA.-** "Berri"ak zinetela mertzenario profesionalak bezala joan behar izan duzue. Zer mixio zeramazuen?

**J.M. ALONSO.-** Begira, boluntarioak eta profesionalak bakarrik joan izan balira, horrek esan nahiko zuen soldaduskak ezertarako ez duela balio. Ze bigarren mailako mariñelok espezialitatearik gabe goaz; hau da, itsasuntziko garbiketak egitera gindoazten.



## "Itsasontzi baten..."



**G.-** Gainera, militar profesionalak joan balira bakarrik, nork egingo zuen lan zikina?

**J.M.A.-** Hori da. Horrez gain, boluntarioak ere ez ziren por-la-patria joan, ez eta behartuta, baina ganberro batzu ziren, eta nobatadak egitea zigortuxeago dagoenez, Golkora joanez penalera joa-  
tetik libratzen ziren.

**G.-** Zer egin duzue han, batere dirurik bai?

**J.M.A.-** Diru bat ematen ziguten baina soldaduskan jatekoa txarra izatenez de-  
nez, dena latak erostea zen eta sobratzen zenarekin oroitzen bat familiarentza-  
ko.

Nire egitekoa subofizialen zerbitzuan egotea zen, ez nuen postu garrantzitsurik, hau da munizioen arduradun-edo. Behin, gaztigatu eta itsasoko trafikoaren begi-  
rale (serbiola) jarri ninduten, eta por-  
tzierto, anekdota bat badut, barkura deitu eta itsasora eroritako serbiolaren bat aur-  
kitu ote genuen galdetu ziguten barku  
estranjero batekoek. Beste batek esaten  
zidan radarretik begira ari zirela, zerbait  
detektatu, zafarrantxora deitu eta zer  
izango eta nazio batetik ihes zihoazten  
beltz batzu txalupa batean. Izutu omen  
ziren beltzak!

**G.-** Eta fragata Sta. Mariaren egitekoa, kontrolak?

**J.M.A.-** "Bultoa" egitea. Irratiz galde-  
ketak egiten zitzaizkien unti irakiarrei.  
Gezurretan harrapatzen bazitzairen, ofi-  
zial, subofizial eta kaboak bertaratzen

ziren zodiak-etan eta miatu egiten zen  
untzia. Helikopteroarekin joaten zirela,  
bada, unti irakiarreko kapitaina builaka  
aterako zen bandera zuriarekin. "Ezer ez  
dugula!" Bost edo sei unti geldiarazi  
genituen bakarrik. Seirehun bat irrati dei,  
dezenteko kontrola.

**G.-** Zer ikusi duzue mundu horietatik?

**J.M.A.-** Holandar, belgiarrekin e.a.  
ibili gara juergan- eta, ondo eramaten gi-  
nen, denok ere behartuta bait gindoazten.  
Arabiar emakumeak nolakoak diren, po-  
litak- itsusiak, ezin dezaket esan. Ezin  
zenituen begiratu ere. Ojo arabiar gizo-  
nezkoekin!

Grezia, Egipto, Djibuti frantses kolon-  
nial, saudiar Arabian (Dubai eta Abu-  
Dabin) ibili gara, hilabete eta pikoan  
behin porturatuz. Hain zuzen, azken hon-  
etan hil zen kabo hura. (Oso arraroa dena  
bestalde, akats larriren bat egon da hor,  
zurumurruek diotenez. Egia izan ala ez,  
subofizialek ziotenez, kaboaren burua  
kolpatu zuen misil-jaurtikitzaila auto-  
matikoki akziona liteke abiadura handian  
blankoren bat detektatuz gero).

Harriturik gelditu naiz, hortik dauden  
hainbat herrialde ikusirik. Batean, erli-  
jioa dela eta, galtza motxetan ezin genuen  
atera. Hoteletan diskotekak, garagardoa  
garesti...

**G.-** Eta kontu itsusiak, gogorrak, bu-  
ruhausteak?

**J.M.A.-** Bakoitzaren arabera bu-  
ruhausteak. Adibidez, hamabostero be-  
rrien laburpenekin folio batzu ematen

zizkiguten. Irakurtzen zenuen eta hurren-  
go egunean gerra genuenaren seguru  
geunden. Irudimenak asko korritzen zuen  
eta oso gordin eta gaizki ikusten genuen.  
Horrela aste batzu, "hemen egon beharra  
daukat, etorri dadila etorri beharrekoa,  
baina ez ditut irakurriko, buruhauste  
gehiagorik ez", esan nuen arte. Gor eta  
itsu ibili nintzen, zurumurrak jakin nahi  
ezta, okerragoa baitzen bestela. Haserako  
astean hiru ordu lo egiten genuen. Pla-  
terak garbitzen ari nintzela lotan geldi-  
turik nago. Txarki. Goardiako ordue-  
z gain konbate zafarrantxoak, ez zenuen  
deskantsatzen eta kejak ugaldtu ziren.

**G.-** Hobeia ala okerragoa izan zite-  
keen?

**J.M.A.-** Okerragoa oraindik? Okerra-  
goa izan balitz... Itxasontzian eman zigu-  
ten prestaketa laburra izan zen. Suterik  
sortuko balitz hemen, itzaliko nuke. Ikasi  
egiten zenuen, zure interesekoa bait zen.

**G.-** Ezandarik, aide-erasorik, izan ba-  
litz...?

**J.M.A.-** Uste dut ezin izango nizukee-  
la kontatu. Gerra unti baten ardatza bere  
armak dira, baina baita defentsak. Den-  
bora osoz, arma garrantzitsuenarik gabe  
egon gara fragatan: hamabi kainoi dituen  
"Meroa" k --su gortina bat sortzen du  
misil etsaiak pasa ez ditezene-, ez zuen  
funtzionatzen. Guk 42 misil generama-  
tzan, baina ez zen nahikoa. Hark eztanda  
egin balu, izugarria izango zen. Fragata  
prestaturik zihoan, baina guk ez genuen  
esperientziarik. Ni bezala beste  
marinelak. Lautatik bat izango ginen  
segundako marinelak, primerakoak ere  
baziren, txuskeroak eta subofizial eta  
ofizialak gainontzekoak. Dena dela, uste  
dut gehiegikerian erori direla.

Mikel Aramendi

## PRAKA-ETXOLA jantzidenda

Kale Nagusia, 44  
Tfna: 8872 06. BEASAIN

**BEROGAS**

BEROGINTZA  
ITURGINTZA

**BEROGAR**

SUKALDEKO ALTZARIAK  
ELEKTROGAILUAK

P. San Francisco, 10. TOLOSA  
Tfna: 65 33 07 / 73

|   |     |   |                                                  |
|---|-----|---|--------------------------------------------------|
| T | ▲   | ▲ | <input type="checkbox"/> OFIZINARAKO MATERIALA   |
| M | PA  | A | <input type="checkbox"/> ESKOLARAKO MATERIALA    |
| Y | PEL | O | <input type="checkbox"/> OFIZIETARAKO ARTIKULUAK |

Amerika, 2. Tloa: 88 89 80 20240 ORDIZIA



Edanak sortutako kalteakarintze-borondatez elkartea

## ALKOHOLIKO ANONIMOAK

Mende bat izango da honez gero alkoholaren izurritearen kontra borrokatzeko zenbait mugimendu antolatu zirenetik. Alkoholiko Anonimoak EEBBetan eratu zirenekoa ere ez da atzo goizekoa. Euskadi mailan 25 urte inguru daramatzate eta hortxe-hortxe Goierriin. Astero biltzen dira Ordizia, Beasain, Zumarraga, Segura, Itsasondo, eta abarretan.

*Ez uste bilera horietara joan eta dena eginik dagoenik, ez. Edateari uztea oso zaila da, ez dago zer eginik benetan utzi nahi ez bada. Hori bai, behin "mirari" hori suertatzen bada, soiltasunean bizi eta ingurukoei pakean bizitzen uztea lortzen dute.*

*Nola jakin alkoholtzaleak ote garen? A.A. neretzat izan liteke? Problematika zaila. Dakienak badaki, ez dakienak irakurri beza hurrengo erreportaia.*

### "Gaixotasuna, ez bizioa"

Familiartean hezten eta hazten da alkoholaduna. Senitateak nozitzen du, alkoholozaleaz gain, gehienbat izurrite hori. Alkohol zaletuak familia ezin du aurrera atera eta gehienetan ezbeharrek baizik ez dakartza, lotsa eta tristezia. Jasanezina bihurtzen da zurrutari batekin bizitzea. Askoz gehiago gainera edaritan xahutzen baditu etxean gastatu beharrekoak. Tratu eta ejenplu txarrak, alkoholikoa zapuzturik aurkitzen da.

Gizarteak ez daki zer den alkoholtzalea. Ez dauka deiturarik ere, mozkorra deitzen zaio. Batzutan, barkatu egingo zaio mozkorrari "*Gaurkoa izateagatik libre, edozeini gerta dakioke*". Baina ardozalea gehiegikeritan jausten bada, gizarteak gogor erantzungo dio. Ez da kontutan hartuko zerk eraman duen pertsona hori egoera horretara. Gizarteak ez daki gizon emakume hori dagoeneko ez dela


errudun baizik eta gaisoa.

Gaisoari ez zaio geratzen askatasunik; edabe bategatik salduko luke baita zera ere... Esklabu dago, fedea itota dauka. Damutze batean bizi da edale amorratua.

Piskana lanera joateari

uzten zaio, bere burua ezin du menperatu sujetoak. Ohizko edaleei ordea ez zaie hori bera gertatzen, justu justuagatik libratzen dira leize horretan amiltzetik, alkohola bezainbat preziazten baitute bizitzak dituen beste zenbait balore.

Lan mundua gauza serioa da eta alkoholeztatuak ez du bere burua gai eta aintzakotzat hartzen lan erresposabilitateak betetzerakoan. Eta ekonomi arloan ere pott. Makurkeriak baino ez zaizkio geratzen bizitzan aurrera segitzeko. Duintasunik ere ez. Egarriak mugitzen du alkoholtzalea. Halere, pentsa dezake. Gizakumea da eta gizartean bizi nahi eta behar du. Zerbaitek bere bihotz barrena mindu eta hunkitzen duenean, erreakzio-natu eta A.A. bezalako elkarte batetara joko du, konprenitzen dutenengana.



16-17 urteko neska-mutilen artean, %68a mozkortu da behin, gutxienez eta %36ak alkoholik gabe dibertsiorik ez dagoela uste du.

Erreparorik gabe, "biluztu" eta aitortuko dizkie bere ahultasunak egunen batean.

### Gaina gainetikoen gainetik

Ez da erreza nonbait, A.A. etako bilek burutzen diren geletara sartzea. Ihes egitea omen lehen erreakzioa: zaila izan arazoari aurre egitea. Gu sartu garenean Gipuzkoa mailan lehen urratsak emandako batekin juntatu gara, J. (anonimatoa da lehen jarritako garantzia); 50 urte inguruko gizon musugorri bat; eta bi emakume, bata gaztea (P.) eta bestea adinean aurrera samar sartua, ama bat.

Hona gizonaren testigantza: "*Jeneralean kostatzen da, baina neri ez zitzaidan inporta izan. Gutxienetakoa izango naiz akaso. Hain hondoraturik eta ho-*



## Erreportaia

*lako zuloan nengoen, edozein gauza egiteko pronto nengoen salbatzeko hortik”.*

Bada esaldi bat: A.A. etara ez doala nahi duena, baizik eta nahi ez duena doala. Hemen dauden guztiak ez dute etortzerik nahi izan. Inork ez du gaisorik egon nahi. Eta are gutxiago alkoholak eragindakoaren pean. Beraz, hortik etorri nahi eza. Hortik erremedioa bilatu beharra. Baina gaisotasunak eta gaisotasunak daude. Medikuntzak senda ahal lezazken-edo gaisotasuna badira. Alkoholismoarentzat ezer gutxi dute medikuntza ezberdinek, bizioa ez baino garuneko gauza baita.

Ama horrek zionez, *“lehenbiziko aldian munduko ezertxoagatik ere ez nintzan etorriko. Etorri aurretik gauza bakoitza bururatzin zitzaidan! Izan ere lotsagarria baitzen. Uste nuen zer bait egingo zidatela emen. Orain semeak esaten dit, “ez zenuen joan nahi, e?! Begira zenbat denbora daramazun”.* Hiru urte beteko ziren. Beti gogoratzen da bilera egunetaz. Txoraturik dabil.

Nor den alkoholikoa eta nor ez, hori norberak esan behar du. Emakume gazteak, P.ek, zioena, *“neri adibidez, inork ez dit esan naizenik. Asumitu nuenean, neronek esan nion neure buruari. Inorgatik ezin dezakegu esan. Esan dezaket Urliari edo Sandiari alkoholak arazoak sortzen dizkiola eta punto. Harik eta norberak bere burua alkoholikotzat jotzen ez duen arte, hori ametitu arte, ez du zereginik. Salbatu nahi badu, ezinbestekoa zaio hori dela onartzea”.*

A.A. ren lana ez da kontuak eskatzea, agintzea, --sujerentziak egitea baizik etorri berriari. Programa esplikatuta eta nahi duena geratuko da eta gainantzekorik ez. programak ezer esaten ez badio bati, badaki zer egin: aldegin. Gero, denborarekin, batzuk lehen egunetan eta gehienak denbora puska batera, norberak ametituko du problemarik baduen ala ez. Formula, bitxia da: *“X izena dut eta alkoholikoa naiz”.*

Alkoholiko anonimo berriak ez die engainatuko aurretik daudenei. Trantze beretik paseak dira eta badakite eginiko galderei zein erantzun den faltsua eta zein ez. Tranpa jarria dago. Berak esan eta berak sinestuko du gezurra badio.

J. ren hitzetan, *“guk erakartzea gehiago bilatzen dugu promozioa baino. Ez dugu deus egingo gaur Goierriko moz-*



*kor guztiak ekartzeagatik. Bihar ospa egiteko? Nahiago dugu konbentziturik dagoen bakar bat geureganatzea”.*

Beste gizonezkoak gaineratzen du: *“gutako bat, tabernetara joateko ohitura eduki, eta, txurrutari eman gabe dabilela ikusten duenean jendeak, ohartzekoa da, lana egiten ari zara, ejenplua ematen. Zurrutari bezala eza-gutu gaituzten herri titikiotan balioa ematen zaio horri. “Txupete”ari 30 utetan eman eta orain uzteak pentsaarazi egiten du. Batipat prolema hori dute-nei”.*

Gutxi baziran orain artekoak, esan, alkoholismoa edarienganako debilitadea izateaz gain, horrenganako buru-barrenarainoko obsesioa ere badela. Oso gaizki datorkiela diote ahobatez A.A.k, gorputzarentzat ere bai, beste ezertan ez du uzten pentsatzen. Edozeren gainetik, familiaren gainetik, guztiaeren gainetik. *“Guri, ez biezaigu alkoholera falta, eta ez dago prolemarik. Ez hainbeste behinepein. Horren ezean izurraturik gaude”.*

### Beste drogomenpekotasuna

Esan gabe doa bilera hauetan ez dela zauririk berritu nahi, talde terapia erabiltzen dela eta komunitatean bizitzea bizitzeko era bezala hartzen dela. Egun batean batean eta bestean bestean bilduko dira.

Hasi berrien aitormen eza izan omen

liteke atrebentzia ezagatik, ezjakintasunagatik, erresposabilitateagatik. Berrortzeko beldurragatik ez da hartzen askotan A.A.-ren mezua zabaltzeko konpromezua.

*“Lehen egunean aitortzen denak kezkatzen gaitu. Publikoki esan eta gero “txupetea miazkatuz”, horrela ezin da”,* dio fundatzaileetakoak. Berak ere 22 urtetan edanari eman gabe egonda gero estropozu bikaina egin omen zuen.

Lagunei esker bizitzara bueltatu zen; inori desiatzen ez dion bezain txarki pasatu zuen, disgustu eta apuruak.

Borondate indarra baliosoa bide da, baina erabakiorra lagunen anaitasuna eta konprentsioa. Alkoholikoa alde guztietatik jipoitua dator hona, hautsita. Beren terapia guztia horixe da: bata besteei beren kasua kontatzea. Hori gauzatzean errudun konplejua baretzen zaio bati. *“Jainkoaren barkamenik ez dut”,* da ohizko pentsamendua. Batek uste du bera dela pizti txarrena. *“Hori gaur egun; duela urte batzu biziosoa dejeneratu batzuk ginelakoan geunden. Medikuek ere ez ziguten esango gaixoak ginenik”.*

Ezaguna da edozein drogaren pareko kalteak dakartzala alkoholak. Euskaldungoaren portzentaia altu batek nozitzen dute eta bere ondorioak ezagunegiak zaizkigu. Menpekotasun honek kalte psikiko eta fisikoak eragiten ditu, zirro-



## Alkoholismoa

sia, "delirium tremens" a, eta eromena azkenik.

Halere oso zaila egiten zaigu datuak biltzea. Osakidetzara deitu arren ez dugu izan jakiterik alkoholikoen daturik, gibelko, zirrosi eta honelako gaisotasunak bailiran sailkatzen baitira edanak sortzen dituen kalteak.

*"Dena den", jarraitzen dute A.A.-k, "guri ajola zaiguna, gure misioa, gaisoa salbatzea da. Gertatutako ez dago atzeratzerik. Gure bizitzaz egin dugunaz pentsatzen jarriko bagina...! Talde terapian aitortza egiteak, barnean darabazun karga emozional horretatik libratzea suposatzen dizu. Bakoitzak barnean duen zikina ateratzen ez badu, errazagoa izango da erorketa. Aldiz, sendabidean, hau da, alkoholtze prozesua gelarazteko zoria du bere "pekatuak" adierazten dituenak".*

Bakoitzak bere esperientzien berri emango du, edatearen hastapenak, bere biziko arazo apartak. Bakarria ez dela ohartzen da bat. Eta gaitzerdi komunitate horretan bizi direla, ze beren artean bakarrik elkar-konpreni daitezke. Lagun berri bat hurbiltzeak ematen dio bizi eta arnas berria taldeari, adorea eta ilusioa lanean jarraitzeko. Ezin hobeto onartua, besoak zabaltzen dizkio taldeak.

Beren programan 12 galdera, 12 pausu eta 12 tradizio dituzte. Tradizioek batera bizitzera bultzatzen die, diskusiorik gabe, inor behartu gabe. Galdetuak izatean, hemen ez omen da ez Jainko bakarrik, ez eta sekta edo antzekorik. Erabat irekirik daudela eta elkarlanean sinesten dutela ziurtatu ziguten.

### Barrutik prozesioa

Urteak eta urteak horretan eman arren, alkoholtzalea ezin daiteke beste edozeinen moduan bergizarteratu. Heriotzaraino jarraituko du, dena izanez. Normaltasunez edatetik gehiegikerira pasatuz gero ezingo du atzera jo. Eutsi bai, baina ojo, granurik edan gabe. Piska bat edanez gero, akabo! Lehenengo tragoxka txarre-na dela erakusten digute A.A.-k, alkohol kopuruak etengabe igotzen baitira.

*"Goizeko 8etarako 8/10 garagardo berezi igo eta ordu bete beranduago hustuta nituen. Hori koilare bat bezala da: askatu eta perla bat erori ezker, hor zihioztik atzetik denak! Bileretara etortzea gasolinaz hornitzera etortze-antzekoa da. Burua freskatzea, ez dezagun ahaztu garena garena".*

*"Medikuak esan zidan baso bat edan nezakeela. Zer nahiago? Horixe esatea besterik ez nuen behar! Baso bakarria, baina aze tamainakoa edan nuen, dzanga, dzanga-dzanga! Lau egunetara hiru botailakada zen nere zurruta. Etxetik atera gabe".*

*"Nik, 18 urtekin hiru litrona garagardo edaten nituen. Emakumeok, beti ere, gehiago ezkutatzen gara. Zintzurra bustitzen segitu banu, noraino ez ote nintzan iritsi?"*

Halako lekukotasunak ematen dizkigute, mila adibide emanez jarraituz, konturatu ahal gaitezen mixeria horren murruntzaz. Etxeetan daudeken problema latzak eta garratzak aipatzen dituzte. Gazteek geroz eta garaizago edateko joera hartzen dutela, ilusioen galera... Al-



kohol kontrakoek testigantza eder bezain gordinak.

Balantzearen ordua iritsi zaigu. Musu trukean, altruismoan oinarritzen den el-karte anonimo eta interklasista honek bo-rondatezko izaten jarraitzen du, inolako laguntzarik inondik jasotzen ez duelarik. Beren mezua zabaldu, nahi ez duenari pakean utzi eta berrien bila ateratzea da helburua.

Jon Mikel Arano  
Itsasondoko Kultur Taldea

arazorik  
badaukazu?



284515  
deitu!

Debalde  
Goierriko

«GOIERRITARRA» ETXEAN JASO NAHI DUT

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA..... TLF.....

Zenbait  
Udalei  
esker!



## II. "GERRIKO"

### IDAZLAN-SARIKETA

Euskal Kulturgintza bultzatu nahian eta, konkretuki, Goierriko bailarari buruzko ikerlanak indartu asmoz iaz idazlan-sariketa bat antolatzeari ekin zion Goierriko Euskal Eskolak. Orduan lanbide historikoak zein egungo lanbideak izan zituzten aztergai parte hartu nahi izan zuen guztiak. Lau lan aurkeztu ziren eta epaimahaikideen eritziz hiru argitaratzeko modukoak zirela eta hortarako bidean dira. Hauek alegia:

-"Basogintza Goierri". Mikel Sarriegi. -"Urbiako artzantza". Andoni Aizpuru. -"Artzantza". Ainhoa Galparsoro. (Behin-behineko izenburuak)

Sariketa hau sortzerakoan behin egin eta ahaztu ez baizik eta urteroko antolaketak izan zedila nahi bait zen, aurtan ere, ilusioz bete eta indarberritutako 2. "Gerriko" Idazlan-sariketa martxan da jadanik.

Aurtengo gaia Goierri dagokion Giza-Zientzien alorreko Ikerketa-lana izango da. Hau, herri mailako nahiz eskualdekoa izan liteke. Bestalde norberaren esku geratuko da ikuspegi historikoa, soziologikoa, inmigrazioa, industria edo beste alor bat lantzea. Horrez gain, edozein garaitako lanak onartuko dira, baina antolatzaileek diotenez, garai jakin batzuen barruan egotea gomendatzen da.

Lehiaketa honetan euskarazko, eta ez euskarara itzultitako, lan orijinalak onartuko dira. Hauen luzera, gutxienez 80 Dina 4 150ekoa, idazmakina, biko tar-teaz eta hiru kopia aurkeztuz izango da. Idazlan guztiek sinaduratzat lema bat besterik ez dute izango. Horri gehituko zaio kartazal bat, zeinaren kanpoko aldean, lanaren izenburua eta lema idatziko diren, eta gainera bere barnean berriok dituen idatziak: Lema, lemaren egilearen izen deiturak helbidea eta telefonoa.

Sariketara aurkeztu diren idazlan guztiak datorren urteko apirilaren 1.a baino lehen bidali beharko dira Goierriko Euskal Eskolara. Bertako Batzordeak eta Maizpide Euskaltegikoek izendatuko dute epaimahaia, honek hartutako erabakia atzera-eraz izango delarik. Aipatutako mahaikoek, aurkeztutako lanaren edukinaren zientifikotasuna, berri dagokion materiale grafikoz eta bibliografiaz hornitua izatea eta euskararen erabilaren zuzentasun eta egokitasuna,

hartuko dute kontutan.

Bestalde, sariak honako hauek izango dira: lehenak 300.000 pezeta jasoko ditu, bigarrenak 200.000 eta hirugarrenak 100.000.

### GOIERRI LANBIDE HASTAPENAK

Goierri lanbide hastapenak 1.991. ikasturtearen aurrean.

#### Zer garen?

Alternatiba bat. Ikasketak jarraitu nahi ez dituzten, edo eta ezin jarraitu dituzten 16-20 urterako gazteentzat irtenbidea eskaintzen dugu, lan munduan sartzeko aukera izango dutelarik.

#### Non gauden?

Goierri Lanbide Hastapeneko Zentroan, Goierri Lanbide Eskolaren barnean. Gutaz, eskualdeko Gizarte Laguntzaile guztiek informazio zehatza emango dizute. 889200 telefonora dei dezakezu.

#### Helburuak?

-Lanbide zehatz batetarako lehen prestakuntza eman. -Ikaslearen gaitasunak garatzeko laguntza eskeini. -Lan eta gizarte mailan heziketa. -Gizarte harremanak hobetzen lagundu. -Astiaz gozatzeko irakatsi.

#### Zer ikas dezakezu?

Ikasturte honek lau espezialidade ditu: Igeltseritza, Sukaldaritza, Arotzgintza Metalikoa eta Estheticien. Tailer bakoitza 20 ikasle beteko da (plaza mugatuak direlarik). Ikastaroak urtariletik abendurarte iraupena du eta astean 30 ordu ematen dira, 20 tailer, 5 sozio-laborala eta beste 5 denbora libreko ekintzetarako.

#### Gero?

Ikasturtea amaitzean ikasleek enterpresetan praktikak egingo dituzte, eta Eusko Jaurlaritzako Diplomak eskuratzeko posibilitadeak izango dituzte.

### RENFE: LATAZKO SARDINAK BEZALA

Badakit Renfek urtero, ez beti bere erruagatik baina, diru-galera handiak dituela. Eta badakit, tren berandu datorrenean, bidaiariari ez zaiola normalean inolako azalpenik ematen. Edo ematen bazaio, oso berandu ematen zaiola. Eta badakit, istripu larriren bat gertatzen denean gertutik gertura gabiltzanontzat ez dela berehalakoan autobusik jartzen. Eta badakit, Altsasuko geltokian ez dagoela telefono-kabinarik.

Baina gaur ez dut gauza hauei buruz hitz egin nahi, latazko sardinei buruz baizik, Ordiziara astelehen-goizetan zazpiak eta laurdenetan heltzen den trenan igotzen diren bidaiariari buruz. Tre-na iristen denean, hor ibiltzen gara aurre-ra eta atzera boltsak eta karpetak eskuan ditugula, zein atetik sartu asmatu ezinik. Trena jendez gainezka etortzen da, eta sardina bati eta besteari bultzaka sartzen gara. Heldu gara Itsasondora. Batzuek igo egin nahi dute, eta, gutxi batzuek, jaitsi. Baina ez pentsa trenan igotzea hain gauza erreza denik. Lehendabizi, ate-ondoan egonik Itsasondoren geratu behar ez dutenak jaisten dira Itsasondora joan nahi dutenei leku egiteko, eta, gero hasieran jaitsitakoak eta Itsasondoren zain zeudenak igotzen. Eta non iristen garen Legorretara. Eta hemen ere kontu bera. Azaroaren 19an ikasle batzuk, etsita, "ez dago gehiagorentzako lekuri" esanda, Legorretan geratu behar izan zuten. Baina normalean, jende guztia igotzen da, bati zapaldu eta besteari ukalondoa saihetsean sartu behar bazaio ere. Gu ere horrelaxe sartzen gara. Eta iritsi gara Ikaztegietara. Eta hemen ere gauza bera. Eta iritsi gara Alegira. Eta hemen ere gauza bera. Azken boladan, horixe da asteleheneroko kontua!

Tren luzeagoa, nahi dugu. O sea, **quemos un tren más largo. Vale, Renfe?**

Jon Imanol Iturrioz.  
(DNI: 15.964.271)





MUEBLES

*Ordizia*

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50

88 23 54

88 11 92

88 53 50

46, Posta Kutxa  
ORDIZIA



JATETXEA

DONOSTIA

ALTZAGA

GASTEIZ

☎ 885255

Itsasondo Ordizia

HEGOA  
TABERNA

Goierrri Kalea, 12 (Atzekaldea)

ORDIZIA



TXALUPA  
ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA



P - 21  
Kafetegia

• Sandwitx eta gosari apartak

Goierrri Kalea, 21.  
Zentru Komertziala.

ORDIZIA

BEASAINGO  
TABERNARIEN  
ELKARTEA

**Bilore**



**Autowag, s.a.**

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.  
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN


**Kirol jantzieta  
espezialistak**



kimi kirolak

Domingo Unanue Enparantza 5  
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



**IRVROK** S.L.  
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea  
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA



# SEXU ARAZOAK ADINTSUENGAN

Azalpen edo hitzaurre gehiagorik gabe ekin diezaiogun zuzenean sexua arazo suposatzen ari zaien adineko gizon eta emakumezkoen istorioak ezagutzeari. Ondoko lekukotza hauek, nondik norakoaren zehaztasunen neurria damai-gute gainbehera sexuala dela eta. Emakumezkoari korapilotsuagoa zaio asuntua ikusiko dugun bezala.

### “HARRITUA”

Hona hemen lehendabiziko istorioa. Pertsonaia, garaieraz bajuxamarra dela esango genuke, zaildua, dinamikoa eta alaia. Hirurogeitazortzi urte ditu. “Ni normaltasun osoz aritu izan naiz orain gutxirarte”, diosku.

“Bataz beste asteko saio bat”, normala baino normalagoa iruditu zaiona, bestalde, “badauzkat lagunak asteko bizpahiru alditan funtzionatzera” ere iristen direnak. “Zergatik ezin naiz izan beraiek bezalakoa? Normala ez den ezer al daukat? Zer egin dezaket?”.

### “INPOTENTEA”

Beste bat. Hirurogeitamar urtetako gizon batetaz ari gara, “inoiz ez dut gustokoa izan emagalduekin joatea. Beti izan dut nahikoa nire emaztearekin. Baina orain ezin dut erantzun. Badakit ez dauzkadala berrogei urte. Baina normala al da nire urteekin ezin egin izatea? Ba al dago ezer indarra areagotzeko? zer aholkatzen didazu?”.

### “ASPERTUA”

“Entzun izan dut -esan digu beste honen-larogei urterekin txortan aritzeko kapaz diren gizonak badaudela, posible al da? Zenbaitetan zakila tente jarri ohi zait. Baina nire emaztearekin hasten naizenean pot egiten dut. Behin, beste emakume batekin jo nuen eta oso ondo ateratzen zitzaidan. Nire emazteak ez al nau jada kilikatzen ala? Beste emakume batzuekin jo beharra daukat?”. Gizon honek hirurogeitabederatzi urte ditu.

### “EMAZTEAK EZ DU NAHI”

Beste bat. Nik, egia esan, uste dut gau-

za hauek ez nautela zertan kezkatuerazi behar. Baina, zer egingo diot, ba!! Txortan egin ahal dudalakoan nago; nire emazteak, ordea, diosta hori ez dela iada guretzat. Gaia gaizki hartzen du.

### “FRUSTRATUA”

Hurrena. Oso tipo dotorea honako hau, bizarra egokiro moztua eta hobeto orraztua, trajeatua eta itxura onekoa. Hirurogeitabederatzi urte, orain duela sei gerroztik alarguna. Bizimodu maila altukoa, agi denez. Zerbait behar du --berdin dio zer--, “ondo erreakzionatzeko”. Noizean behin premia du gonbidatzen duen baten batekin zertzeko... “baina aitontzat hartzen zaituzte”.

### “MASTURBATZAILEA”

Mosaiko labur honen azken puska. Utzikeria antzematen zaioneko hirurogeitamasei urtetako gizona. Apopilo dago. Masturbatu egiten omen da. “Neri gertatzen zaidan hau ez da normala. Nik ez dut nahi izaten baina irrika ni baino gehiago da. Egin izan dut gazteago nintzela baina dudan urte pila honekin ez da normala!! Zergatik izan behar dut nik premia hau?”.

### ARAZO SAKON BATEKIKO ISEKA ETA TXISTEAK

Honela, eta antzeko motako jiteaz, azaleratzen dira arazoak; lotsatuak edo kuriosoa ditugu, hain zuzen; normaltasunez erantzun nahi izateko gogoia bate-tik, eta horrela ezin izan daitekeenaren segurantzia, bestetik, etsipena asko erabili izan da jendaurrean.

Norbere buruaren aurrean, berriz, tar-teka-marteka galdera batzuek planteiatzen dira. Nolakoa izan behar du sexualitateak nire adinean? izan al dezaket harreman sexualik? Noiz amaitzen da ahalmen sexuala?

Eta arazo honetan hazka pixkat egin orduko, egia irak nabarmenena izango da guztiz ezberdinak direla kanpora agertzen dena eta barruan gertatzen dena. Kanpokaldetik, txisteak eta isekak, gizarte presioa eta dezentzia deritzona. Barnekaldetik, mailua gisa etengabeki



kolpatzen duen kezka pertsonal gotorra, benetazkoa batzuetan, exageratua eta gaiztoa besteetan.

Gusto txarrekoztat jotzen da adineko pertsona batek irrika sexuala izaten jarraitzea. Edukitzekotan ere, egin deza-keen hoberena ixiltzea da. Nabarmena izan arren, gizarteak norabide honetan erakusten duen ankerkeria zapaltzailea, ez gara konturatzen haatik. Hau da hitza, hain zuzen ankerkeria. Eta badago beste hitz egoki gehiago ere: mixeria, ezjakintasunean oinarrituriko eta kontsolazio gisako zinismoaz zipriztinduriko mixeria gorria.

### TRAJEDIA GORDINAGO BAT: ADINEKO EMAKUMEZKOA

Oso arraroa gertatzen da hauetako emakume batek bere desirez hitzegitea, galdetu edo soluziobide bati heldu asmoz. Hirugarren adinean emakumezkoen sexualitate ezak hain normala ematen du ezen ez ohizkoa eta ia gezurrezkoaren piurak hartzen bait ditu gai honekin datorren emakumezkoak.

Gizonezkoarengan arazoa beldur, zinismo edo maltzurkeriaz mozorrotu nahi baldin bada, emakumezkoari geratzen zaion baliabide bakarra ixiltasun ixile-nean pulunpatzea da sexu kutsua duen orori dagokionez. Oso bakanak dira hirurogei urtetatik gora izan eta beraiek ere sexudunak direla pentsatzen duten emakumeak. Askotan pentsatu izan dugu, honetaz hitzegiten edo idazten dugunean

zerbait profanatzen ari garela. Aipatu ohi baldin bada ere tabuarena desagertzen ari den zerbait dela, adinezko emakumezkoengan tabua bere gordintasun latzean aurkeztzen zaigu.

Gai honetaz hitzaldi bat ematen genueneko batean eta norbaitek zioen bezala, argi dugu "gusto txarraren sustatzai-

leak" garela. Pentsakera hau, hein haundi batean, ulergarria da, ezin bait da ahantzi sexualitatea, haragikeria eta lizunkeria-ren parekoa izan dela urte askotan zehar. Baina oso beharrezkoa izango litzateke pentsakera hau berraztertu eta errealitatea gizalege dosi handiagoz hurbiltzen saiatzea.

Agian, honetan ere beharrezko gauza bakarra sexualitate informatua izango litzateke.

**ZERRAILA, orientabide eta informazio sexualerako zerbitzuak eskaintako artikulua.** (Itzultzaile: Aitor Zugasti)

## Musika

"Ez dok amairu" k 25 urte

### "Yoloak", "Euskal kantagintza berria" ren aintzidariak

1964 urte inguruan koadrilako lagun bat orkestra euskaldun gisako batean eratzeko asmotan elkartzen da. Koadrilan, Jose Manuel Bergarak sortu edota bultzatu zuen musikarako zaletasuna, Txistulari Bandara eta Errondailara eraman zituen zenbait gazte, beraz garaiko orkestra hori egiteko bazuten esperientziarik.

Baina bere proiektuko orkestra klasiko horren saxo eta tronpetak, orduntxe modan zeuden kitarra elektrikoengatik aldatu zituzten. Karlos Turrientes baxuan; Jose Manuel Bergara punteo kitarrarekin; Jose Mari Basarte kitarrarekin batera ahotsa jartzen; eta Josetxo Mendizabal baterian: "Yoloak" taldea sortua zegoen. Urteko bereko uztailaren 24an beren lehen emanaldia.

Garai hartan Ordizian "Academia de Musica" izeneko erakundeak utzitako lokala (gaur egungo Dorrea etxean) eta zenbait istrumendu aprobatxatuz hasi ziren. "Garai hartako hamar mila duroko kreditu bat eskatu behar izan genuen lehen gailuak erosteko", kontatzen digu Joxetxo Mendizabalek.

Diru hori eta materiala berritzeko behar izan zutena, beren lehen berbentetan irabazi zuten. Euskal kantagintzan "pionero" edo aurrelari izan zirela esan dezakegu.


Geroago, berbenak baino esanahi sakonago bat zuen proiektu batetan murgilduko ziren: "Ez dok amairu" talde bereziarekin batera (Xabier Lete, Lurdex Iriondo, Mikel Laboa, e.a.) eta beste zenbait talderekin ere: "Oskarbi", "Bihu-

rriak", "Urretxindorrek", Txomin Arto-la... Euskal Herri osoan zehar kantaldiak ematen hasi ziren. (Gogoratu kantagintzak orokorrean eta "Ez dok amairu" taldeak zuten karga politikoa garai hartako egoeran).

Honela, garaiko kanta famatuena euskarazko bertsioak eta poeta euskaldunen kantak Euskadiko zine, plaza eta baita hainbat elkarteetara eraman zituzten, igande goiz eta larunbat arratsaldetan.

Talde honen historia, hainbestetan gertatu izan den bezala, partaide biren soldaduskara joan behar izateak moztu zuen. 1968. ekainaren hasieran-edo, hortxe geratu zen "Yoloak" taldearen esperientzia polit hura.

Mendi





# ERRI TXIKIETAN

A skoren iritziz, ondo eta zoriontsu bizi izateko, iri edo erri aundietan bizi izan bear da. Euren ustez, leku oietan dauzkate mundu ontako aurrerapen, erosotasun eta aukera ugari baÑan, nik, ori ez det orrela ikusten. Denok, gauzak, kristal ezberdiÑetatik ikusten ditugu. Nik nere kristaletik begiratuta, garbi ikusten det Goierrri ontako erri txikiek ere gauza berezi eta on asko dauzkatela. Atoz nerekin, irakurle, eta gonbita egiten dizut, kristal onen bidez, gure erri txiki oei begikada bat botatzeko. Ara zer ikusiko dituzun.

Udaberri eta udaran, eguraldi argitsuak diranean, eguzkiaren irteera geren etxeetatik ikusteko aukera izaten degu. Era ortako aukerarik bai aal dute iri eta erri aundietan bizi diran biztanle guztiak? Batzuek bai, besteek ez. Askok ez dakite eguzkiaren printzak sukaldean sartzea zer dan eta are eta gutxiago beren logelak patio aldera dauzkatenak. Bear bada, patio oietan, batzuek leio xaar bat edukiko dute eta beste batzuek au ere ez. Leiotxoak daukatenak, liztatxo bat jarriko dute bertan eta andik zintzilikatuko dituzte beren erropak leortzeko. Gure etxeoandreek beste aukera eder bat daukate. Izare, erropa eta abar, garbitu ondoren, eguzkitan egurasten dituzte goxo eta ondo leortzeko.


Erri txikietan delako OTA ori ezezaguna degu. Kotxea gure etxe aurrean utzi genezake lasai, nai degun denbora guzian --ezer ordaindu gabe gaÑera-- eta gruak eramango digun bildurrik ez degu izaten. Semafororik ere ez degu ezagutzen Ordizia, Beasain eta Ormaiztegi izan ezean. Goierrri alde ontan orrelako bentajak dauzkagu naiz, iri eta erri aundikoentzat, ori orrela izatea, atzerapena dala uste. Kalea gurutzatzeko ez daukagu zai egon bearrik orain gorria eta orain berdea dagoen ala ez ikusteko. KamiÑoaren bi aldeetara begiratu eta, kotxe eta kamioirik ez badator, aurrera lasai asko. Iri eta erri aundietan ez dago au egiterik. Erri txikietan bai, ordea.

Emen, erri txikietan, denok alkar ondo ezagutzen gera, etxe altuenak iru-lau bi-

zitza izaten ditu eta. Orrelakorik ez da gertatzen "casa torre" dalako oietan bizi diran biztanleekin. Batek ez daki, bertan bizi direnak, zer diran eta ze ogibide duten. Bat izan liteke karrera duna, edo bearbada, txurrero, oÑetako garbitzalle, droga saltzalle eta, baitare, bibotedun karabiÑero erretiratua. Nor nor diren ez dira enteratzen. Igogalluan edo eskalaretan topo egin ezkerro, sarritan, alkar agurtu ere ez dira egiten. Erri txikietan oso bestalde izaten da. Denok alkar eza-gun. Denok adiskide tarteko kako aundiren bat ez badegu. Denok beti lagun eta prest elkarri laguntzeko.

Legortea dagoelako ere, ez degu ur mozketarik izaten. Naiko ur izaten degu eta naiko prezio onean, gaÑera. Iturri ederrak dauzkagu. Begiratu ezazu, adiskide, kristal onen bidez eta ez dezu ikusiko iturri bat "Agua no potable" jartzen duen oietako bat ere. Erri geienetan pelotaleku ederrak altxatu dituzte beren estali eta guzi. Igerileku politak ere jarri dituzte. Parkeetan or ikusten dira aitona jubilatuek kontu kontari eta aurak jolasean. Baso eta mendi ikusgarriak, arrikada batean dauzkagu. Naiko aukera, gauza guzietatik daukagula, uka eziÑa da. Zer geiago bear degu?. Ontara etorri geran ezkerro, erri txikietako beste bitxikeri bat ere kontatu bear det. Segura eta Zaldibian, bertsolariak beren billerak egiten omen dituzte. Segurako berririk asko ez dakit baÑan Zaldibiakoa eldu da nere belarrietara, GOIERRITARRA medio. Ostegunero, illunabarrean, biltzen omen dira Udazkenetik Udaberrirarte. An izaten omen dira Lazkao-Txiki, Iraola eta Goiburu --datorren Ilbeltzean Donostian omenduak izango direnak, ZORIONAK alde zurretik Patxi eta Florentino--, Mendizabal, Xabier Zeberio -biek gure erritarrak- Narbarte gaztea eta abar. Entrenamentua egiten omen dute Nikolas Zeberio --au ere gure erritarra-- zuzendari edo gaijartzaille dutela. Oso ondo, motillek, ori dek ori euskal giroarekin kultura maite izatea.

Beste gauza bitxi bat ere jakin degu Zaldibiako billerari buruz. Entrenamentua asi aurretik --bertsoena, alegia--, afari



Zerain eta Itsasondo

bat egiten omen dute Altzo Txikik prestatua. Jakin, bagenekigun bai, Altzo Txiki au, gauza askotan, artista utsa dala. Sekula ez genuen pentsatu, ordea, sukaldaritzan bazekienik ere. Zorionak, Altzo Txiki. Jakin zak jale oso txarra naizela, baÑan gustora jango nizekikek ik maneatutako dozena bat angula. Ezur eta buru gabe, noski.

Orrela bizi gera erri txikietan gaurko egunetan naiz batzuk kontra jardun beren berriketan. Alaitasuna gaÑez, poza bihotzetan, gauza oberik zer da mundutxo onetan? (Bis).

IBAI-ERTZ. 1990

## Bertsolari gazteoi Besteek markatzen kartak

APIRILAREN BATEAN Ospatu zen Bertsolari Gazteen Eguna Ordizian. Bertsolari gazteen egun honek izugarritzko arrakasta izan zuen eta nabari zitekeen eguna iritsi aurretik jende askoren artean zegoen harridura antzeko bat, zer egingo ote dute gazte horiek?, egiten dutena, zergatik?, eta zertarako?

Orduan bertsozale edonork zituen kezka haiek badirudi berri, eta egun hark areagotu bazituen ere, bare aldi batetara jo dutela egun baterako bakarrik balio izan balute bezala.

Norbaitek eztabaida piztera natorrela uste badu, ez doa bide zuzenetik. Behar bada sarriegi entzun ditudalako adinarekin jauntxo bihurtzen diren horien hitzak, haizea darabilkigula buruan, ez dugula gazteok munduko errealtatearen lurra zapaldu nahi edo bestela, gure ametsak amets hutsak dirala. Behin baino geiago-  
tan etorri zaizkit galdera hauek burura: gazteok ametsik ez badugu, nork izango ditu? edo, gazteak gauzak aldatzeko gogorik ez badu, nork izango du?

Nire eritzi pertsonala dakarkizuet orain, garrantzi gehiegi izango ez duen eritzia, bertsotarako ere geroz eta geiago aldarrikatu nahi dudana norbanakoaren pertsonaltatearen beharra.

Bertsolaritzak, nire ustez, ezer gutxi du naturaltasunaren aldetik, gizarte honetako gauza guztiak bezala, geroz eta artifizialagoa iruditzen zait. Ez al da tristea oraindik jendea bertsolariek daramaten itxurari begira dagoela jakitea? Edo, publiko horrek nahi duena nahi duelako, bertsolariaren egokitu beharra publikoaren estetika gustoetara?

Bertsolari gazteak ondo ezagutzen du hori eta askotan gaude honekin lotuta dauden kritikak jaso beharrean, baina nire ustetan, eta oraindik lehengo erara jarraitu behar dugula dioten horiei esango nieke, gauzak asko aldatu direla, txarrerako edo onerako, eta izateko era guztiak direla onartu beharrekoak. Gu, beste mundu desberdin batean bizi gara arlo honi dagokionez eta honek irentsi gaitu, aurreko bertsolaria beste zerbaitek irentsi zuen bezala.

Beste arlo batetara joaz, bertsoak sortzeko makinarik behar ez bada ere, bertsolariak makina batzu bihurtzen ari gara uste dut. Askotan, egiten duguna gogorik gabe egiten dugu lanerako programatuta bageunde bezala, aurrean dugun jendearen morroiagi garelako ere iruditzen zait eta morroiagi aurrean ditugun horietatik pezeta batzu ateratzerik dugunean.

Gizarteari ikusten dizkiodan akats berberak ikusten dizkiot bertsolaritzari, eta aspertua nago bertsolaritzak gizartearen martxa jarraitu behar duela entzuteaz. Gizartea ez bada bide onetik, zergatik ez du bertsolariak kritiko izan behar?

Gaurko bertsolaritzan ohizkoena ere aurrera egitea da, ahal bada txapela buruan jazeraino eta hori lortu ezean plaza gehien nork egin dezakeenaren borroka sortzen da. Gazteok berriz ez dugu aukera haundirik, besteek kartak markatu balizkigute bezala, beti edo gehienetan galduko dugun partida xeble batetako jokalaririk ez dago.

Askotan, besteek nahi ez dituzten saioak egitera behartuta gaude gu, gustora gainera, eta kontraesan batera iritsi naizela ustekoak jakin dezala, materialismoak geroz eta indar haundiagoa duen mundu honetan, dirua tartekotzat izan gabe egiten denak ere baduela bere atsegina.

Bertsolari gazteen egun hartako mahai inguruan esandako zerbaitek entzuteak ere poztu ninduen horratio. Hau da, bertsolariak beti gai baten esklabu geundenaren itxurak zeudela; ez nau harritzen, nirekin jardun den gazte askori entzun diot gauza berdina, gai librean, askatasun osoan airtzeko aukerarik eza, e.a.. Badago, berri, entzulego mota bat hau diona, guk ez dugula librean jarduteko balio eta Uztapide, Basarri, Lasarte eta halakoek zuten freskura gogorarazten digute.

Baina hau da nire galdera: non ditugu aukerak honela jarduteko --beti loturik, behin baino gehiagotan bertsoaren berri handiegirik ez duten gai-jartzaileekin gainera--? Noizbait librean jarduteko aukerarik dugunean, bada aitzakiren bat, eta eskolako bertsolariak garenaren eten-

gabeko leloa entzun beharra.

Ez dakit eskolameak garen, ez zait gehiegi ajola ere; dakidana da hainbeste aldiz bertsotan esan ohi den hori hor dagoela: "bertsolaritzaren etorkizuna zuen eskuetan zegoen". Baina jaunak, gu bertsolari gazteak gara eta horregatik, bertsoa gure eskuetan omen dagoelako eta esku bakoitzak bere erabilera eman diezaiolako, nire bertsoa nahiko inkonformista den batena izango da. Dioten bezala adinak aldatzen nauñean esango diet ondorengo gazteei, "utzi petralkeriak".

Baina gaur, eta bertsotan ameslari izatea petralkeria bat bada ere, ni naiz lehenengo petralkeria.

Xabier Nabarte





## ATAUNEN JASOTAKO ESAERAK (I)

ATAUNEN jende larriaren ahozko tradizioa aberatsa da, baina gaur egungo belaunaldietara ez da iritsi. Hori ikusirik "Ataungo aho hizkuntzaren barne muinak" (I) eta (II) liburukoteen egileak altxor horren zatitxo bat biltzen ahalegindu dira, beren aberastasunaz kosziente diren berri-emaile herritar ugariren laguntzaz. Esatera zaharrak, esaundak, burla koplak, kortesia formulak, elkarrizketa errimatuak, anekdotarioa, hauen esanahi, erabilkera e.a. aztertu dituzte. Egi berdaderuak dira hona dakartzagun esaerok eta irakurle eta zaleek eskertuko dutelakoan gaude.



Jone Arin Bazarrika eta Josune Arruabarrena Arruabarrena  
ataundarrak. Bata San Gregoriokoa eta Santa Martingoa bestea

**"AINDUE BAT, EMANA BI, AINDUKIN KONFORMA AARI"**. --Agintzea erreza dela, baina ematea ez hainbeste. Horregatik agindutakoarekin konformatu behar garela (nahiz eta gero besteak hitza ez bete).

**"ZOPEA TA EZKONTZA BE-ROIK"**. --Gauza hauek, hoztu edo damutu baino lehen egin behar direla.

**"AILLEN AZKENEN OSTOA AITZ GANEN"**. --Udaberrian, Apirilaren amaierarako, leku altuetan ostoa iritetzen dela.

**"PRAIEK ARTZEKO DOZENA AMAIRU TA EMATEKO AMAIKA"**. --Fraideei ematea baino hartzea gehiago gustatzen zaiela. Hain zuzen ere, hartzaile onak eta emale txarrak direla.

**"UMEKIN OLLA JUTEN DANA KAKA EINDA JEITZEA"**. --Umeek ondo lo egiten uzten ez dutenez, pertsona behar bezala deskantsatu gabe edo nekatuta jeikitzen dela.

**"DONA DONAKIN, ASTOA BEE TXALMAKIN"**. --Bakoitza duenarekin (edo denarekin) konformatu behar dela.

**"GAUZAIAK BELTZENA: ERIO-TZA"**. --Pertsonarentzat gauza ilun eta tristeena hiltzea dela.

**"IL DA GEO OLLOSALDEA AL-PERRIK"**. --Janariak edo mundu hone-tako gauzak hil baino lehenago gozatu

behar direla, gero ez duela ezerk balio.

**"ARDO ONAK PIS GUTXI TA BESTEK PAGAU EZKEO HITZ GUTXI"**. --Ardoak ona izateko ez duela nahasketarik behar. Ardo on hori gainera beste batek ordaintzen badu, oraindik hobe.

**"TXERRI GOSEEK EZKURRA AMES"**. --Gose dena, beti janariarekin pentsatzen egoten dela.

**"FAMILIATEN ANDRAT GUTXITXO TA BI GEITXO"**. --Askotan etxe edo baserri bateko lanak andra bantentzat gehiegi izaten dira, baina bi emakume egon ezkerre sarritan ez dira elkarrekin ondo konpontzen (irrita edo tekela ugari).

**"SUKALDEKO ELATZAK EZAUTZEN DOLA JENDEA"**. --Pertsona bat hobetoen bere etxekoek ezagutzen dutela.

**"BESTE LEKUTAN E TXAKURREK ANKAUTSIK"**. --Leku guztietan egiteko aina lan dagoela. Hots, zailtasun eta arazoak toki guztietan aurkitzen direla.

**"AZKAR DA ONDO USOOK EGAKA"**. --Azkar egiten den lana normalki gaizki ateratzen dela.

**"KANPOON USO ETA ETXEEN OTSO"**. --Pertsona, kanpoan gozoa edo zuria agertu arren, sarritan etxean gogorra edo gaiztoa izaten dela.

**"GEZURRA ESANON GETARIN TA NI BAÑO LENAUA ZAN ATARIN"**. --Gezurarekin ez dagoela urrutira joaterik, berehala jakiten delako.

**"ZURREN BOLSEEK BI ZULO"**. --Zintzoari ere diruak nonbaitetik aldegiten diola.

**"ZOKOK BELEI IPURBELTZ"**. --Sarritan beste pertsona batzuei geok ditugun akatsak kritikatzeko dizkiegu.

**"SUE TA URE BELAUNETIK BEERA"**. --Neurri hortatik pasatuz gero biak oso arriskutsuak gertatzen direla.

**"KEA DAILLEN LEKUN SUE GERTU"**. --Normalki gauza bati buruz zabaltzen diren zurrumurruak beren arrazoia izaten dutela.

**"TONTOK IZATEKO ETZEOK ESTUDIAU BEARRIK"**. --Tontoa izatea erreza dela, berezkoa bait da.

**"OTSOA AIPAU, OTSOA AGER-TU"**. --Askotan pertsona bati buruz hitzegiten ari garenean, pertsona hura agertzen zaigula.

**"ATZEK EAKUSTEN DIK AU-RREA NOLA DANTZAU"**. --Gertatutako gauzek erakusten dute etorkizuneari nola jokatu.

**"ALDAPAN BEERA SANTU GUZTIK LAUNTZEN DIE"**. --Aldapan behera dena erreztasunak direla.

**"GUSTOKO BIDEEN ALDAPAIK EZ"**. --Nor bait gustora dabilenean ez de-



la nekeaz konturatzen, dena erraza iruditzen zaiola.

**"ETXEKO NEKEA KENTZEN DONA: PAKEA".** --Pakearekin erre-zago jasaten direla gauzak.

**"OLLOOK DIE KOTAA, NEE BEGHIK LOTAA".** --Oiloak kotaratzen direnean, pertsonak oheratzeko garaia dela.

**"URRUTIKO KANPAIAK OTS AUNDI".** --Urrutiko gauzak, askotan benetan dena baino gehiago ematen duela.

**"UME ASKO, LAN ASKO".** --Zenbat eta ume gehiago orduan eta lan, nahigabe, gastu, e.a. gehiago.

**"ZENBAT ETA ZAARRAGO ORDUN DA BEARRAGO".** --Pertsonak zahartzean ahalmen gutxiago izaten duenez, besteen laguntza edo behar gehiago edukitzen duela.

**"ITTURRI BIDEN DALLÉN PÍTXARREA AUSTEN DALA".** --Jen-

dea dabilen lekuan erortzen dela.

**"ILLUNTZEKO LAÑO GORRIK GOIZEAKO AIZE AUNDIK".** --Aintzinakok esaten zuten iluntzean laino gorriak bazeuden, hurrengo goizean haize handia egoten zela.

**"GOIZEKO LAÑO GORRIK ILLUNTZEAKO ITTURRIK".** --Goizean laino gorriak baldin badaude, iluntzean euria gogotik egiten duela.

**"AZKAR ETXEA IITXI NAI BAEK GELDI JUN".** --Presaka dabilenari gehienetan ustegabeko arazoak sortzen zaizkiola, beraz lasai ibiltzea hobe dela.

**"ZE EINGO DIAU BA? LENAUKOK BEZELAXE ILL ARTE BIZI".** --Nahiz eta gauzak oso gaizki joan, bizitzaren aurrean etsipena edukibehar dugula.

**"KARGA KARGA, ARTUTAKO LEKUN DESKARGA".** --Behin astoa gehiegi kargatu omen zuten eta, ezin mugiturik zebilela, dena erori omen zitzaion.

Ordutik esaera hau erabiltzen dute.

**"ELURREK ATEEK ISTEITU".** --Elur haundiak ibiltzeko edo mugitzeko posibilitatea galerazten duela.

**"MUNDUKO ONDASUNE: PAKEA TA OSASUNE".** --Mundu hone-tan pertsonarentzat beharrezkoena: pakea eta osasuna edukitzea dela.

**"ASARRATZEEK BI LAN ZETUK: ASARRATZEA ETA AISKIRATZEA".** --Hasarratzeko, lehenbizi gogortu egin behar dela; gero, adiskide-tzeko, bigundu.

**"MILLA ESKER BAÑO OBEA DA ERDIE DIRUTAN".** --"Eskarrikasko" esatea ezer gutxi dela (gauza merkea). Beste zerbait gehiago ere ondo onartuko litzatekeela.

**"ZENBAITT ETXETAN NAUSIE BAÑO BESTE ZENBATTETAN MORROIA OBE".** --Etxe batzuetan (dirua, pakea, e.a. falta direlako) nagusia baino beste zenbait etxetan morroia hobe-to eta lasaia bizi dela.

## Osasuna

### ZER EGIN BERAZKOAREN (DIARREAREN) AURREAN

Berazkoak kakaria esan nahi du, batzutan gorakoa ere agertuko delarik. Bere arazorik larriena deshidratazioa da, hau da, ur asko galtzea. Oso garrantzitsua da goitika eta berazkoaren bidez galdutako ura gorputzak berriro eskuratzea.

Jeneralki, komonera joan beharra izaten den bakoitzean ur gluko-gazitu zurrutadatu batzuek edatea da onena. Nola prestatu ura? Litro bat ur irakin behar da; bi kuxarakada arrozarekin batera. Behin irakin ondoren, arroza kendu eta urari limoi erdi baten zukua, gatz pixka bat eta bikarbonato pixka bat nahastu eta bi sakinarekin gozatu. Hozten utzi eta tragoxkaka edanez joan. Zapore txarra, kokakola nahastuta ken daiteke.

#### Zer gehiago egin behar da?

Gutiz garrantzitsua da lehertzeko dieta bat burutzea. 6 ordutik 24ra bitartean arroz ura, ura eta te arina (azukrerik gabe edo gutxirekin) bezalako likidoak edaten egon ondoren, has daiteke hiru edo lau kuxarakada arroz egosia edota arroz hirina jaten. Gorputzak ondo hartzen ba-

du 3-4 ordu barru, errepikatu eta oilasko edo arrain egosi pixka bat gehitzea posible da.

Berazkoa hobetzen baldin badao gehitu yogurra, ogi xigortua, patata egosia, zopa pasta, jamon york, sagar edo udare egosiak, menbrilloa eta azenario egosiak...

Gorputzak dena ondo jasaten duenean pixkanaka-pixkanaka txekorraren xerra, oilaskoa, arrain zuria plantxan, platanoa,... gehitu behar da. Aurrerago, barazki purea. Apurka dieta arruntera igarotzen da. Esnerik ez hartu erabat ondo aurkitu arte.

Miriam Berruete

#### DENBORAPASAK

10. zenbakiko hitz gezidunen soluzioak:

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| • | E | • | B | • | A | • | I | • | J |   |
| E | S | K | A | N | D | I | N | A | V | I |
| • | T | I | B | A | I | N | A | K | • | B |
| U | R | T | E | R | O | • | R | A | D | A |
| • | O | Z | A | R | • | O | T | I | A | • |
| E | P | I | K | A | K | • | E | N | D | A |
| • | O | K | • | Z | O | T | Z | • | I | Z |
| I | Z | A | K | I | • | A | I | E | N | E |
| • | O | T | • | O | S | I | N | A | • | R |
| G | A | L | P | A | S | A | • | J | A | I |

### Foto-berri eta testu-zaharrak

Gure artxiboa osatze-ahaleginetan, sarituak izango dira foto-berri eta testu-zaharrak (edota alderantziz, foto-zahar eta testu berriak) 124. posta kuxara bidaltzera ausartzen diren guztiak.

Aipatutako kopiak, fotografikoak nahiz fotokopiak, e.a., Goierriarekin edota bertako herriei zer ikusirik balute, hobe baino hobeto. Saria, orain arteko GOIERRITARRA guztiak ez ezik hemendik aurrerakoak ere jasotzeaz gain, publikatu egingo zaiola bidaltzaileari.

Animo!





## ARRIKUTZ, TAILERRAK

AGENTZI OFIZIALA

*Alfa Romeo*



Nafarroa Etorbidea, 53

Tfnoa: 88 52 00

20200 BEASAIN



auto-eskola **ORDIZIA**

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAK

Padre Urdaneta, 10  
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA

## GENERALI

### Aseguroak

**IÑAKI ARIN BAZTARRIKA**

Oriako Pasealekua, 20 - Tfnoa: 88 87 02  
20200 B E A S A I N



**AUTO ESKOLA**


TELEFONOAK:  
Lazkao: 88 72 99  
Beasain: 88 18 96  
**GIPUZKOA**



## MUJICA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94  
ORDIZIA



**EGUZKI**

**Inprimategia**

Nafarroa Etorbidea, 9  
Tfnoa: 88 94 82  
20200 B E A S A I N

# G U R P I L

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51  
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03  
20200 B E A S A I N

## EROSKI

# KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak  
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

**ORDIZIA**

TAPIZ ETA GAINETADURA  
TAILERRA

**B i O K, c. b.**

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.  
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

**"Irabazleentzako eskuliburua"**

**("Charles Moulay": Legorretako Patxi Ezkiagaren lehen nobela).**

Bukatu berria dut (irentsi berria) Patxi Ezkiagaren lehen nobela: "Charles Moulay". Azkar samar irakurri dut nahiz eta nobela mardula izan; eta nobela bera ere presaka samar publikatu dela iruditzen zait, izan ere asko bait dira agertzen diren akats ortografikoak.

Baina batez ere nobela hau benetan gustatu zaidala esan beharra daukat: bere idazkera ez zait oztopo gertatu eta, alde-rantziz, gai erakargarri bati janzkera ederra ematen diola pentsatzen dut.

Gainera, nobela honek badu goierri-tarrontzat zerbait bereziagorik; izan ere idazlearen jaioterriaren inguruko bazte-rrak, inguruak eta denak oso argi agertzen bait dira:

*"(...)Ibareseko errota pasa; Asto-ka-lean zaldia txinga bati lotuta utzi; mantal urdina jantzi, bluxa beltza kendu eta al-kondara besoak erremangatu; aitonaren figura izugarria iruditzen zitzaidan(...)"*.

Feriaz ari da, noski. Baina nobelak asko ere urrutiago eramango gaitu: nobela, hori baino askoz unibertsalagoa da (Marsella, Tunez, Paris, London...); eta pertsonalagoa, izan ere gutako bakoitzaren barruko mekanismoak (haundinahia, gorrotoa, geurekoikeria, irrikak) ondo asko azaltzen bait ditu.

Nobela berri hau, droga, hilketa eta suspentseko itsaso narratibo batean gertatzen bada ere, bertara ematen duten zenbait erreka honakoxeak izan daitezke:

*a) Oroimena:* Izokiak --salmoiak--, gaztetan erreka utzi egiten du itsas aldera jotzeko; baina zahartzarora sumatzen duenean, atzera egiten du errekan gora, bera jaiotzen putzuraino. Eta Charles Moulay-k horixe egiten du, elefante zaharrek ere egin dezaketen modu beretsuan: kanposanturako oroimenezko bidea hartu. Charles Moulay judutarraren hizketa eta historia da nobelan nagusitzen dena, baina badago beste protagonista bat, entzule ere badena: Alain irlandarra.

Baina Charles-en oroimena pertsonala da, bere historiaren bertsio bat, eta nobelak hori osatu egin beharko digu... Gauzak diren bezala azaldu. Eta horretarako emaztearen egunerokoa edo diarioa ere azalduko da, edota alabaren argibideak.

*b) Armonika:* Charles bere aitaren armonikaren doinu zahar eta misteriosuan bizi da; garai batean ama txoratzen zuen doinua orain Charles-entzat da, bizitze-

ko, hiltzeko. "Armonika nire aberria da", esango du momentu batean.

Musika, jeneralean, oso elementu nabaria da; nobela zentzu guztien arteko jolasa da, jolas existentziala: usain exotikoak, koloreak, doinuak... Modu honetan, nobelari sentsualitatea dario. Egia esan, ezagun du idazlea poeta ere badela.

*c) Propietatea:* Juduei egokitu izan zaien izpirituari jarraituz, Charles irabazle hutsa da (horrexegatik lehen jarri dudana azpitu-lua): "Zerbait ezereen truke" izan nahi duen sentimendurik gabeko irabazlea, pertsonak ere "eduki" nahi di-tuena. Baina bukaeran hutsik eta bakarrik gelditzen da, bera jaiotzen ikusi zuen baserrian, berak bilatu duen abandonoaren hatzaparren harrapatutik: "Ezereza zerbaiten truke".


Propietate zentzu honi lotuta birjinitatearen arazoa ere aipatu nahi nuke. Emakumea objektutzat jotzen duenez, emakumearen altxorra garbia eta ukitu gabea nahi du Charles-ek. Tunezeko Madeleine dantzaria baztertzen badu, horrexegatik da; Mandy aukeratzen badu, horrexegatik da.

*"Emakume zoragarria zen. Birjina, nigana iritsi arte. Langile porrokatua, argia eta irudimenez betea".*

Bukatzeko, zera esan nahi dut: pozgarria dela nobela hau gure literaturara lotatzea. Nire ustez, idazleak ondo ezagutzen ditu narrazioaren klabeak: trama erritmoa, egitura, hizkuntza... Eta nobela ezagupen (eta ausardia) horren fruitu heldu eta ederra da, eta eskertzen da.

*"Ongi joan zitzaidan. 'J'ai deux amours...'", kantatzen zuen Edith Piaffek. Barregura ematen zidaten hitzek. Nik bakarra neukan, irabaztea, eta irabazteko prestatu nintzen".*

**Patxi Zubizarreta**





## Liburuak

**GARMENDIA, Xalbador.**

**"Beltza! Beltza!"**

**Donostia: Erein-Auskalo. 1990.**

Iazko uda parte horretan Xalbador Garmendia zaldibitarren aspaldiko ipuin bat agertu zen berriro kalera. Zenbait egunkari eta aldizkarik aipatu zuten liburu hau, baina ez da oraintxe-azti arte ikusi ahal izan liburudendetako apaletan eta goierritarren oporraldiak ez du orain arte horren berririk emateko aukerarik eskaini bestalde.

Ipuina, aspaldikoa zen, 1969an *Eganen* agertutakoa, eta aldaketaxoren bat tartean (euskara batuan irakurtzeko oraintxe dugu parada), lehengo hartan agertu da berriz.

Ipuinean, Tolosako Eskolapioetan ikasten dabilen, erreka-bazterren irudia burutik kendu ezinda, eta amorrainen berri maixuak baino askoz hobe ezagutzen zuen ume baten pasadizoak ematen dira.

Bertan, egilea bera bezalaxe, Xalbador izeneko eta Zaldibikoa den mutilko horrek aitonari kontatzen dizkio Esko-

lapiotan ikasteak sortzen dizkion saminak, eta horrekin batera gutuna irakurtzean aitonari datozkien burutazioak tar-tekatzan dira liburuan.

Harripetik lapurtutako arrantzetako amorrainak baino hotz haundiagoa zuen ume baten pasadizoak dira. Haurren ahot-  
sa entzun erazten duten beste liburu asko bezala, hau ere haur literatura sailean agertu da, haur baten gertatuak izatega-  
tik, sobra ere.

Gizarte osoak, umeak andre eta gi-  
zon-txikiak egitea baino beste biderik ez dagoela, lanbide eta profesionaltasuna-  
ren aldeko apustua derrigorrezko dela eritzi dionean, ez dio inori --umetako txorakeriak ahazteko ahaleginetan ari di-  
renei ere-- kalterik egingo Xalbador Garmendiaren lanak. (Ez eta eguneroko errealtateari begiratzea ahaztua duen ha-  
zaldiotako guraso askori ere, apaizaren jitea bera baino ilun eta beltzagoa bait da

Xalbador Garmendia

## Beltza! Beltza!



maiz- asko umeen bakardadea).

Lastima, orain erreka-bazterretan arrantzaleentzako ez baino fabrika kutsa-  
tzaileentzako bakarrik dagoena tokia! Bestelako burutaziorik sortuko litzateke, gainerantzean, gure artean!

**Marife Irastorza**

## Izen propioak

Antton Idiakez, ezkiotarra, berrogehi-  
taka urte. 73. urte ingurutik euskarazko klaseak ematen dihardu, Unibertsitatean aurrena, Donostian gero (AEK-ko Gi-  
puzkoako arduradun izatera iritsi zela-  
rik); hurrena Goierriko Euskal Eskolan, 81.ean- edo hasita; Lazkaoko Maizpide Euskaltegian gerora. Goierriko euska-  
razko irakasle beteranoenetakoa izango dugu, ariketak sortzen lan izugarria egin bide duelarik taldean.

Horrez gain, ondo famatua da, irakasle maitatua eta preziatua aidanez Lazkaotik pasa diren ikasle andanaren partetik. Beti umore onean, klaseak ematen magistra-  
la,... baina isil gaitezen (izen propioen sail honetan agertu behar dela aurretik baleki, garbituko gintuzkeen! Gero ge-  
rokoak!) eta eman diezaiozun hitza 89.ean euskaltegiko ikasle zenbaitek ate-  
ratako aldizkariari, hots, "Maizpideko Oihua"ri:

Antton "Campuzano". Askotan eus-  
kaltegiko pasiloetan zehar ikus daiteke  
tipo jator baten silueta, makurtu samar-



tuta, bizarduna, lotsatia, agian, kopleti-  
boez, aditzez,... beteta. Karpeta lodi bat  
eskuetan daramala, bigarren gaztarooan  
sartuz. Inork ez dakizki bere sekretuak.  
Hor duzue bat, nekez lortutakoa: egun  
batetan, Donostiako alde zaharreko ka-  
leetan zehar bera eta bere lagunak  
zihoazela, ikusi omen zuten letrero bat.  
Bertan "Cañas" jartzen zuen. Taberna  
berri bat zela pentsatuz, eta garagardo  
hura dastatu nahian, egarriak bait zeu-  
den, harantz abiatu ziren. Hura sorpresa  
izan zena hura! Letrero osoa ikusi zute-  
nean, horrela zioen: "Sastreria Cañas".

**Oto eta Pototo**



**Sukal-  
dea.**

**Esne-afaultzki edo krema**

Esne-afaultzki ona egiteko lenbizi-  
ko gauza beaf deguna da, *esne ona*  
eta *esne ontatik* lau katilukada (kafea  
aitzekoa bezelako aunditasunekoak)  
esne irakiten ipintzen dira. Irakiten  
astan danean azukrea erosten zala eta  
suñatik kazua atera.

Gero, lau afaultz goñingo nasteka  
(bati bati) egindakoak eta aldan poli-  
klana, esne epel oftara botatzen dira;  
baño beti esneari zedozerekin eragi-  
ten zaila.

Afaultzak eta esnea ondo nastuta  
dagozenean, efamu-osto-ura edo bes-  
tela limoi ur piliin bat ere erastea ona  
izaten da.

Beñtro kazoa suñtan ipintzen da,  
eta an dagon bitartean ez da aztu  
beaf beti eragiftez ibiltzea nai dan  
año loditu arte.

Naikoa loditzen dala iruditzean,  
suñatik atera, malaratu beaf dan on-  
tzira eta ozluta dagola malaratzen da.

**ETXEKOANDRETXO**

# Goierriko jira (I)

1.  
Bertso berri batzutan  
noa ematera  
nola den Goierriko  
jendeen tankera.  
Hogei herri badira,  
gutxi gora-behera,  
nahi nituzkenak orain  
plazara atera  
biziak eta hilak  
daitezen entera.

2.  
Zegaman hil omen zen  
Zumalakarregi  
hartu eta elizan  
zuten gero jarri.  
Cara al Solen musika  
entzuna hain sarri  
hangoa da eskerrak  
Telleria horri  
belerik behar bada  
bertara etorri.

3.  
Seguran zopa jana  
eliza galanta  
seguru dago dena  
koartel bat bada ta.  
Irrati famatuan  
soinu eta kanta  
Don Zesareok dauka  
grazia aparta  
frontoia estaltzea  
baizik ez da falta.

4.  
Lehenago burdin minak  
famatu Zerainen  
gaur bolariak dira  
Goierriko gailen.  
Erreferendunean  
zertan ote ziren  
herri hortan omen zen  
botorik gutxien  
xaguek ez dute nahi  
katurik Madrilén.

5.  
Mutiloan izotza  
ziguten eskeini  
baina ai zer leku ta  
ermita Lierni.  
Putzu baten plan hoiek  
penatu naute ni  
txerrigorriek ezin  
dutena konpreni  
lurrak irents dezala  
ez bada komeni.

6.  
Idiazabalen kontuz  
ibili erbiak  
gazta ederrak janda  
dabiltz azeriak.  
Amerikano jaunak  
dituzu erdiak  
besteak mutilzaharrak  
ai zer komeriak  
on egin dezaiera  
San Blasen feriak.

7.  
Ormaiztegi lantegiz  
betetzen da ari  
zubi bat Eiffel bera  
zuen gidari.  
Orain harrikariak  
bildurra ugari  
herria presapean  
gelditu badadi  
ito nahi ez duenak  
ikasi igari.

8.  
Gabin makilari  
guztiak batera  
Estandako presari  
alto ematera.  
Hainbat baserri eta  
lur eder urpera  
lehen lainotsua bazen  
kontuak atera  
arnasa nola hartu  
beharko ote da.


9.  
Olaberrin nagusi  
Aristrainen denda  
Lopez Bravoren lagun  
zer nolako prenda.  
Goiko herri polita  
dezadan izenda  
ezkonberrien lehen  
habia omen da  
aproba ezazue  
Harrietan janda.

10.  
San Martinen argira  
noa Beasaina  
ura eskas omen da  
ta bera zikina.  
Urbanismoko saltsa  
ai ama birjina  
bareak itotzeko  
dirudi egin  
zer izango ote zen  
satorrak bagina.

11.  
Beasainek baditu  
lau herri beregan  
Garinén otamotzak  
mendiaren maldan.  
Hara Astigarreta  
eta Arriaran  
Matxinbenta jainkoak  
daki nongoa dan  
argitzeko onena  
arkume bana jan.

12.  
Komertzio herria  
azen Ordizia  
azokara biltzen du  
Goierri guzia.  
Feria famatuak  
galduz doaz ia  
baina hor gelditzen da  
koartel nagusia  
ganadu armatuen  
ikuilu bizia.  
(...)


Xabier Amuriza  
(Goierriko Jaialdia  
Lazkaon-79-1-26)





# HARAKINA!

**Zure harategia eroso eta gaurkotuta ipini nahi baduzu etor zaitez guregana.**



Hiltegi hozgailu batean ipinitako instalakuntza  
Bai txekor, ardi eta bait txerriak biltzeko goi instalakuntza



Senpere Auzoa, z/g.  
Telefonoa (943) 88 15 57  
LAZKAO (Gipuzkoa)

**ERAIKUNTZAK O. E.**